

Polonia helmuga, lehen geltokia

2012ko urrian, Aiora Jakaren bisita izan zuten Poznańeko Adam Mickiewicz Unibertsitatean, EHUko irakasleentzako Erasmus beka aprobetxatuz hango euskara irakurletzak gonbidatuta. Zenbait tailer eta eskola eskaini zizkien euskara eta itzulpengintzako ikasleei; bidaia horren kronika jasotzen da ondorengo orrialdeetan. Bidaia hartatik, Poloniako haur (eta ez hain haur) literaturako zenbait ipuin ere ekarri zituen berarekin Aiorak, aurreko urteetan Poloniako euskara ikasle batzuek itzulitakoak.

Maciej Wojtyszkoren ipuinak dituzue, beraz, jarraian, Bronba pertsonaiaren inguruan gizar-teari begirada zorrotz, argi, eta aldi berean imajinazioz betetakoa zuzentzen diotenak. Wojtyszko, 1946an Varsovia jaioa, ez da soilik idazlea, baita zine, telebista eta antzerki gidoilari eta zuzendaria ere. Animazioan aritua, literaturaren arloan haurrentzako liburuak idazteagatik da ezaguna. Bronba da ziurrenik beraren pertsonaia ezagunena, eta haren omenez ospatzen da 2007tik “Brombalandia” jaialdia, Poloniako Haurrentzako Artearen Jaialdia, alegia.



Polonian ere euskaraz

AIORA JAKA

Ez dakit itzultzailea naizelako eta hizkuntzak interesatzen zaizkidalako gustatzen zaidan hainbeste bidaiatzea, ala asko bidaiatzen dudalako gustatzen zaizkidan hainbeste hizkuntzak. Oiloaren eta arrautzaren dilema askaezina. Gauza da nire ofizio-afizio honek beste herrialde, hizkuntza eta kultura bat ezagutzeko aukera begien aurrean jartzen didan orduko hantxe abiatzen naizela ni, maleta erdia jakintzaz beteta eta beste erdia hutsik, han ikasitakoez betetzeko.

Halaxe abiatu nintzen Poloniara iazko azaroan. Europako unibertsitateetako irakasleen arteko mugikortasuna sustatzeko programa batez baliatuz, astebeteko egonaldia egitera nindoan Poznańeko Adam Mickiewicz unibertsitatean. Entzuna nuen poloniarrek badutela euskara eta euskal kulturarekiko halako interes berezi bat, eta euskaraz ia arrotz kutsurik gabe hitz egiteko halako trebetasun harrigarri bat. Banekien,

halaber, Manu López Gaseni, Patxi Zubizarreta eta Bego Montorio ere egonak zirela aurreko urteetan Poznańeko unibertsitate hartan euskal literaturaz eta itzulpengintzaz hainbat hitzaldi eta mintegi ematen. Nik ere antzeko zerbait eskaini nezakeela pentsatu, eta halaxe jarri nintzen harremanetan Adam Mickiewicz Unibertsitatean euskara eta euskal kultura irakasten diharduen Amaia Donés gasteiztarrarekin. Nik zer eskaini nezakekeen eta haiek zer eskatzen zuten aztertu ondoren, bi hitzaldi eta bi mintegi emango nituela adostu genuen, etnohizkuntzalari-tza ikasketen barruan euskara ikasten duten ikasleentzat hitzaldi eta mintegi bana, eta filologia hispaniarrekoentzat beste hitzaldi eta mintegi bana.

Saioak nola edo hala prestatu, polonierazko hitz eta esamolde beharrezkoenen zerrenda inprimatu, Poloniaren eta Poznańen historiari buruzko Wikipediako sarrerak

behintzat irakurri, eta halaxe abiatu ginen mutil-laguna eta biok azaroko larunbat hotz hartan Loiuko aireportura. Ez, mutila ez zertorren nirekin aireportura maleta eramaten laguntzera, nirekin batera hegazkina hartzera baizik, ni baino ipurtarinagoa baita halako kontuetarako (esan dezadan hemen Yannick quebecarra dela, eta Euskal Herrian daramatzen hiruzpalau urte hauetan Europako hamaika herrialdetan aurkitu duela nor bisitatua edo zer ikusia...). Han gindoazen, beraz, euskaldun bat eta quebecar bat Loiutik Munichera eta handik Poznañera, hegazkinean polonierazko hitzak ikasten eta azentu bereziz josiriko letra haiek nola demontre ahoskatzen ziren asmatu nahian.

Poloniako lehen euskalduna

Lau bat orduko bidaiaren ondoren, ustedut nahiko modu sinesgarrian lortu genuela hurrengo egunetan egoera bat baino gehiago salbatuko zizkigun esapide zorionekoa ahoskatzea: “Nie mówię po polsku. Czy mówi Pani po francusku / angielsku / niemiecku?”, hau da: “Ez dakit polonieraz. Badakizu frantsesez / ingelesez / alemanez?”. Ez genekien Ania Andersz, Amaia Donések Poznañeko aireportura gure bila bidali zuen euskara-ikaslea, zenbateraino izango zen euskaraz komunikatzeko gai, eta, badaezpada ere... Ezusteko ederra hartu genuen, ordea, Aniarekin topo egitean: euskara hutsean zuzendu zitzaigun Poznañeko aireportu txiki eta mortu hartan bi turista galduren pare ikusi gintuenean. Ethnohizkuntzalaritzako ikasketak egiten ari omen zen, eta unibertsitateak eskaintzen zituen hizkuntza ez-indoeuroparren artean euskara hautatu

omen zuen. Gasteizko Letren Fakultatean ere hainbat hilabete emana omen zen Erasmus truke-programa baliatuz, eta oso txukun moldatzen zen euskaraz.

Aniaren eta bere mutil-lagun Arturren autoan sartu, eta hirirantz abiatu ginen. Goizeko bostetan gosaldutako zerealak aspaldi digerituta genituenez eta bezperan hainbeste maitasunez prestatutako ogitarteko goxoak hozkailuan ahaztuta utzi genituenez, goseak amorratzen geunden Poznañera iristerako, eta gogotsu onartu genuen Aniak eta Arturrek Poloniako janari tipikoa zerbitzatzaren jate txetxe batera joateko egin ziguten proposamena. Behi bat ere irensteko moduko gosea genekarren arren, nekez bukatu genituen atera zizkiguten bi platerkadak: zopa lodi goxo-goxo bat, non gutxienez kilo erdi bat haragi baitzebilten puska txikitari igeri, eta normalean barazki hutsez beterik egonagatik lehenengo platerkadak bezainbeste kaloria izango zituzten “pierogi” famatuak. Yannickek harrিতuta utzi ninduen ilargierdi formako enpanadilla haiek ikusi eta “A! Ze ondo! Pierogiak!” esan zuenean, “txikiak ginela askotan prestatzen zizkigun amak”. Yannicken ama Kanadako Manitoba probintzian jaioa da, eta badirudi probintzia hartan etorkin poloniar asko finkatu zirela hemeretzigarren mendearen bukaeran eta hogeigarrenaren hasieran. Pierogiak, beraz, ohiko errezeta bihurtu ziren Manitobako edozein etxekoandreraren sukaldean.

Tripa bapo beteta atera ginen jate txetxe hartatik, eta, Ania eta Artur agurtu ondoren, atsedean hartzen igaro genuen arratsaldea “Very Berry” ostatuan. Unibertsitateko zereginei heldu aurretik bi egun oso gelditzen zitzaizkigun, eta ahalik eta ondoen

aprobetxatu nahi genituen inguruko bazterrak ezagutu eta turismo pixka bat egiteko.

Lau nola eskatu ez badakizu, eskatu hiru

Hurrengo goizean, beraz, nahiko lo egin ondoren, kalera irten ginen Poznańen bueltatxo bat emateko asmoz. Hiri bereziki polita ez den arren, alde zaharrak badu bere xarma, batez ere *Stary Rynek* delakoak, merkatu-plaza zaharrak, alegia. Hiria sortu zen garaian eraiki omen zuten, XIII. mendean, eta Poloniako eta Europako plazarik handienetakoa omen da. Deigarria suertatzen da (inguruan halakorik ikusi ez duen euskaldun batentzat, bederen) plazaren erdian kokatutako eraikin-multzoa: udal-txea plazaren erdi-erdian dago, panpinenak diruditen merkatarien etxe koloretsuen eta beste hainbat eraikin ikusgarriren ondoan. Alde zaharreko kale eta eraikinen Erdi Aroko estiloarekin kontraste bizian, arkitektura sobietarra da nagusi Poznańeko beste hainbat jauregi eta eraikuntzatan, eta hiria azken hamarkadetan jasaten ari den mende-baldartzea ere islatuta ikus daiteke hainbat solairuko merkataritza-gune, etxe-orratz eta abarretan.

Eguerdirako gosetuta ginenez, eta bezperan Aniak eta Arturrek Poloniarren egun nazionalaren inguruan jan ohi ziren “rogale” izeneko croissant modukoak probatzeko gomendatu zigutenez, ikusi genuen lehen gozodendan sartu ginen. Egun gutxiren buruan ospatu behar zuten Poznańeko poloniarrek beren festa nazionala (gogoratzeko 1918ko azaroaren 11n independentzia lortu zutela, ehun urte baino gehiagoz Austriar-Hungariar inperioaren, Prusiaren eta Errusiaren artean

banatuta egon ondoren), baina ordurako edonon eros zitezkeen “rogale”-ak. Bina janda bazkari-legea egingo genuelakoan, lau “rogale” polonieraz nola eskatu pentsatzen hasi ginen. Baina gure zerrendan bat, bi eta hiru zerbakiak baizik agertzen ez zirenez, ezin ba lau eskatu! Hirurekin konformatuko beharko genuen (gero ez ginen damutu gehiago erosi ez izanaz: bakarra janda afarira arte goserik ez!). Han bota genuen gure polonierarik dotoreenean: “Dzień dobry! Trzy rogale poproszę”. Saltzaileak zirkinik ere egin gabe eman zizkigun hiru croissantak, gure ahoskera baldarraz eta deklinabide ziurrenik akastunaz inolako komentariarik egin gabe. Huraxe gure lehen arrakasta linguistikoa! Ingelesaren bitartekaritza hotz, arrotz eta inpersonalera jo behar izan gabe lortu genuen poloniar batekin komunikatzea!

Ingelesa zertarako?

Poloniarrei polonieraz hitz egiteak bazuen, ordea, arrisku bat: erantzuna ere polonieraz etorriko zen. Eta orduan bai komeriak! Horixe gertatu zitzaigun hurrengo egunean, *Toruń* hiria bisitatzera joateko treneko txartelak erosten saiatu ginenean; baita handik egun batzuetara ere, Muzeum Narodowe w Poznaniu edo Poznańeko museo nazionala ikusi nahi izan genuenean. Ondo ikasitako esaldia bota ondoren (“Dzień dobry! Nie mówię po polsku. Czy mówi Pani po angielsku?”), to! saltzailearen erantzuna, irribarre erdi batez lagunduta: barbarbarbarbarbarbarbar... Ondorioztatu genuen honelako zerbait esan nahi zigula: “Ingelesez? Zertarako behar duzu ingelesa

polonieraz baldin badakizu?” Gure burua ulertaraztea lortu izanaz harro, baina aldi berean elkarrizketarekin ezin jarraitzeaz amorratuta, erdi-ingelesaz, erdi-polonieraz eta erdi-keinuka lortzen genuen azkenerako elkar ulertzea.

Poloniako bigarren euskalduna

Horrelako beste hainbat abentura linguistiko bizi ondoren, eta Poznań eta inguruak pixka bat arakatu ondoren, gure egonaldiaren hirugarren egunean elkartu ginen lehen aldiz gure euskal enbaxadorearekin: Amaia Donés gasteiztarrekin. Amaiak Sonia Kolaczek ikasle ohia aurkeztu zigun: Adam Mickiewicz Unibertsitatean euskara ikasi eta hainbat hilabetez Euskal Herrian bizi ondoren, ikaragarri ondo moldatzen zen euskaraz. Harrituta utzi gintuen. Erdi lotsatuta aitortu zigun ETBko programa batean parte hartu zuela aurreko udan, beste bi atzerritarrekin batera Euskal Herrian barrena festaz festa ibiliz. Hantxe, beraz, donostiar bat, gasteiztar bat, poloniar bat eta quebecar bat Poznańeko kaleetan euskaraz. Bi neskek unibertsitatea erakutsi ziguten, hitzaldiak eta mintegiak non eman beharko nituen azaldu, eta gero kafetegitik jatetxera eta jatetxetik tabernara, halaxe igaro genuen eguna, Euskal Herriaz, Poloniaz eta beste mila kontuz hizketan.

Adam Mickiewicz Unibertsitatean euskal itzulpengintzaz

Hurrengo egunean jarri nintzen lehen aldiz unibertsitateko ikasleen aurrean. Hispaniar filologiakoei elementu kulturalen

itzulpena interesatzen zitzaizela eta, gai horri buruz hitz egiteko eskatu zidaten. Euskal itzulpenaren historiatik hartutako hainbat adibide erakutsi nizkien, ikus zezaten nola ordezkatu ohi diren askotan kultur elementu arrotzak xede-irakurleagoari ezagunagoak zaizkion beste elementu batzuekin. Interes eta arreta handiz jarraitu zuten ia bi ordu iraun zuen hitzaldia; hori gutxi ez, eta ikasle haietako batzuek, jarraian Amaia Donésekin euskara-klasea zutenek, gaiari buruz hizketan jarraitzeko eskatu zidaten. Halaxe eman genuen, beraz, beste ordu eta erdi, giro lagunartekoagoan, euskal itzulpengintzaz hizketan.

Arratsaldean gidatu nuen mintegia ere interesgarria izan zen oso. Harkaitz Canoren “Patinatzaile euskaldun baten memoriak” eta Rikardo Arregiren “Arestiren argazki zuri-beltz baten aurrean” itzuli zituzten polonierara filologia hispaniarreko ikasleek, poema horien gaztelaniazko bertsiotatik abiatuta. Ez zen batere lan erraza, hain zuzen ere “elementu kulturalaz” beteta daudelako bi poema horiek. Han ibili ginen “irrintzi”, “akelarre”, “gaupasa”, “euskaltzale”, “maldan behera” eta abar nola polonieratu erabakitzen... Ikasleekin artean, gurekin genuen Barbara Stawicka Pirecka irakaslea ere, zeinak Harkaitz Canoren eta Rikardo Arregiren poema liburu bana polonierara itzuliak baititu, eta asko ikasi genuen haren gogoeta eta esperientziatik.

Euskara-ikasleak ezagutzeko aukera hurrengo egunean izan nuen. Haiei ere hitzaldi eta mintegi bana eman nien, erdi-euskaraz, erdi-ingelesaz eta, Amaia Donésen lagun-tzaz, erdi-polonieraz... Itzulpenak euskara bezalako hizkuntza gutxituetan duen ga-

rrantziaz aritu ginen lehenik, eta gero Joseba Sarrionandiaren “Durango 1937” ipuina polonierara itzultzen ahalegindu ziren ikasleak, Amaia Donés irakasleak lagunduta. Ez zen egiteko erraza, ipuin horren beraren tonu poetikoa eta iradokitzen dituen interpretazio ugariak kontuan hartuta. Ikasle guztien euskara maila ere ez zen berdina, eta Euskal Herrian denboralditxo bat igarotakoek testua ulertzeko zailtasun handirik ez zuten arren, hona inoiz etorri gabekoek nahiko lan izan zuten hainbat esaldi interpretatzeko.

Zegamar bat Poznańen

Eta poloniarrek euskaraz entzuteak eragindako harridurak liluratuta jarraitzen nuela, gau hartan beste ezusteko atsegin bat izan nuen, oraingoan euskal hitz batzuk galiziar baten ahotik entzutean. Santiago de Compostela Unibertsitateko Fernando Cabo Aseguinolaza irakaslea ere programa berbera baliatuta Poznańen zegoela aprobeztatuz, Adam Mickiewicz Unibertsitateko Magda Potok, Barbara Stawicka Pirecka eta Amaia Donés irakasleek jatetxe batera eramantuz gintuzten afaltzera Fernando Cabo eta biok. Atzerritar batek euskal abizena duela entzun orduko euskaldunoi sortzen zaigun jakin-minak bultzatuta, euskal jatorria nondik zetorkion galdetu nion Santiago de Compostelako literaturaren teoriako eta literatura konparatuko katedradunari, eta hara non erantzun zidan ama euskalduna zuela, nongoa eta nire aitaren herri berekoa: Zegamakoa. Mazkiaran Barrena baserrian jaio omen zen, Zumalakarregi hil zen baserri berean, eta gazterik joan omen zen Santiagora

farmazia ikasketak egitera. Saiatu omen zen seme-alabei euskaraz irakasten, baina galiziera eta gaztelania ikastearekin nahiko lan, antza, eta Fernandok esan zigun hitz solte batzuk besterik ez zuela ikasi. Garai batean udaro etortzen omen ziren Zegamara, eta ondo gogoratzen omen ditu inguruko bazterrak. Nire aitaren jaiotetxea ere, Mendiata baserria, ezagutzen omen zuen, nahiz eta gaur egun guztiz erorita dagoen. Zer diren gauzak. Poznańeraino joan behar zegamar bat ezagutzera...!

Azken eguna Poznańen

Azken eguna gelditzen zitzaigun Poznańen. Eman beharreko hitzaldi eta mintegi guztiak emanda, erlaxatu eta besteei entzutea zegokigun orain. Goizean, unibertsitateko hainbat ikaslek hiriaren bisita gidatua eskaini ziguten Fernandori eta bioi, beren gaztelania praktikan jarritz aldi berean. Unibertsitateko hiru ikasle, Yannick, Amaia Donés eta bere mutil Tomasz, Fernando... koadrila polita ibili ginen kalez kale, hiriguneko eraikin, jauregi, plaza eta kafetegi entzutetsuenak bisitatuz: *Stary Rynek* edo merkatu-plaza, udaletxea, Raczyński liburutegia, Poznańeko Poloniar Antzokia...

Arratsaldean, berriz, Fernando Caboren hitzaldiak entzun genituen. Ikaslez betetako anfiteatro handi batean, “La emergencia de las literaturas regionales en el siglo XIX” hitzaldia eskaini zigun. Geroago, berriz, espainiar literaturaren lekuaz aritu zitzaigun beste hitzaldi arrakastatsu batean, non “Historia de la literatura española” bildumako 9. liburukian bildu dituenak azaldu baitzizkigun.


Unibertsitateko irakasleak agurtu, azken paper-kontuak konpondu, apunte, liburu, ordenagailu eta bestelakoak ostatuan utzi, eta Poznańeko gure azken gaua aprobetxatzera atera ginen. Sonia Kolaczekek lagun eta ezagun piloa deitua zuen gure ostatutik gertu zegoen Pod Minoga tabernan, eta hantxe egon ginen goizeko ordu txikiak arte, garagardo eta vodka artean oraintxe euskaraz, oraintxe polonieraz, oraintxe frantsesez, oraintxe alemanez, batekin eta bestearekin hizketan. Ordurako gure poloniar lagunik minena bihurtua zen Soniaz gain, han zeuden Amaia eta Tomasz ere (gizajoak nahikoa buruhauste zuen euskara-gaztelania-poloniera-errusieraz moldatzeko...!), eta baita unibertsitateko hainbat ikasle ere: Weronika Nowak, Hondarribian “au pair” moduan hainbat hilabetez egona eta euskaraz ia azenturik gabe hitz egiten zuena (harrigarria!), Natalia Stolarska, lotsati samarra izan arren euskaraz oso txukun moldatzen zena eta master amaierako tesia euskal-kiei buruz idatzi zuena, Klaudia Matysiak eta Tosia Babcszyń hispaniar filologiako ikasleak... Giroa gehiegi berotu aurretik, e-mailak eta muxuak trukatu, kontaktuan jarraitzeko promesak sinatu, polonieraz ikasitako agur guztiak azken aldiz praktikatu,

eta ostatura itzuli ginen Poznańeko kale hotszetan barrena.

Do widzenia, Poznań!

Poloniara erdi hutsik eramandako maleta bete-beteta ekarri genuen Euskal Herrira, lagun, esperientzia, bizipen, jakintza berri eta ilusioz gainezka. Poloniarren abegikor-tasunak, irekitasunak, berritasunetikoa interesak, euskararekiko lilurak... hunkituta utzi gintuzten zinez. Eskaini baino askoz ere gehiago jaso genuelako sentsazioarekin itzuli ginen, Poloniara berriro noiz itzuliko amestuz.

Baina bizipen eta ilusio haiez guztiez gain, altxor txiki bat ere ekarri genuen maletan: Maciej Wojtyzsko idazle poloniarren hainbat ipuin, Sonia Kolaczek eta beste hainbat euskara-ikasle Amaia Doné-sen laguntzarekin euskarara itzuliak. Non argitaratu bilatuko nuela agindu nien, eta hara non aurkitu dudan *Senez*en horretarako leku aproposa. Bihoazkie hemendik nire agur eta eskerrik beroenak Poznańeko egonaldia hain atsegina egin ziguten Sonia, Amaia, Tomasz, Ania, Klaudia, Weronika, Tosia, Natalia... eta besteei. Dziekuje! Na razie!



Bromba i inni (Bronba eta besteak) da idazlearen liburu ezagunenetariko bat, eta horko bederatzi ipuin ekarri ditugu orriotara. Ipuin bilduma hau ez ezik, bertan agertzen diren izakiek badute beste bizilekurik ere: liburuaren mugak gainditu, eta Wojtyszkoren beste testu batzuetan ere agertzen dira. 2003an *Bromba i inni* haur eta gazte literaturaren kanonean sartu zen, *Gazeta Wyborcza*ren irakurleek liburu horixe aukeratu baitzuten Liburutegi Nazionalak antolatutako lehiaketan.

Itzultzaile: Sonia Kolaczek, Joanna Anders eta Alicja Jankowiak.

Zuzentzaile: Amaia Donés eta Aiora Jaka.

Irudiak: Maciej Wojtyszko.

Fum turistikoa



Fum turistikoa —beste hitz batzuetan, Fum-turista; modu txikigarrian, Fumitxu edo Fumitxo; gutxiagotan, Fumiño— bidaiatzen duen izakia da (*animal transportera*). Txangoak egiteko eta oporrak hartzeko aproposak diren edo aproposak diruditen lekuetan aurkitzen dira espezimenez handienak.

Fumak bikoteka edo familia osoarekin ibiltzen dira, fumka eta pio bereziak egiten. Fumkatzeari atsekabearen seinalea da; poza erakusteko, ordea, animaliak pio egiten du.

Izaki bat Fuma dela igartzeari erraza da, dauzkan bederatzi besoetako bakoitzak zerbait egiten duelako: poltsa, burusia, lastaira, eskuko biradera, beltzaran jartzeko olio eta motxila bat eramaten ditu, edo dirua zenbatzen aritzen da.

Fum guztiak pentsatzen dute beren ekintza nagusia atsedean hartzea dela; horregatik, beren indar guztiarekin deskantsatzen dute; horrek asko nekatzen ditu. Baina nekatu eta gero zerbait egiteko dagoen modu bakarra atsedean hartzea denez, berriro hartzen dute atsedean. Horrek asko nekatzen ditu, eta horrela denbora guztian.

Hala ere, Fum batek ere ez du lanik egingo atsedendian, osasunaren aurkako gauzarik okerrera dela pentsatuko lukeelako.

Fumen ohiturak ez dira oso konplikatuak, baina noizean behin kanta hau abesten dute:

Fum, fum, fum, fum, fum,
fum, fum, fum, fum, fum!
Inoiz ez da halakorik ikusi!
Inoiz ez da halakorik ikusi!

Desengainua hartu dugu,
haserre eta goseak gaude!
Fum, fum, fum, fum, fum!
Fum, fum, fum, fum, fum!
Inoiz ez da halakorik ikusi!
Inoiz ez da halakorik ikusi!
Ai! Noiz hartuko dugu atsedeen
luze eta eroso!

Ez dira, oster, hain mantsoak, denbora guztian atsedeen hartzeak asko haserretzen eta urduritzen dituelako.

Fumek kontserbak eta arrautza egosiak besterik ez dute jaten. Eboluzioaren bidean, aurreko hortzak aurreratu egin zitzaizkien, eta poto-irekigailu gisa erabiltzen dituzte orain.

Tamalez, orain arte ez dute ikasi sakabanatutako oskolak biltzen.



Oro har, Fumak jendez betetako bide turistikoetan ibiltzen dira; baina behin batean, okertuta, Fum bikote bat Kastoreen Aintzira deituriko lakura ailegatu zen.

— Senar, senar —esan zuen Fum andreak—, begira zer nolako izaki arraroak.

— Izaki aspergarriak —erantzun zion Fum jaunak—. Ez dut ezertxo ere ulertzen; zertan ari dira?

Kastoreak zuhaitz bat zerratzen ari ziren Urtegi Handirako.

— Nire animalia laztana —esan zion Fum andreak gertuen lan egiten ari zen kastoreari—, nor zarete?

— Kastoreak —xuxurlatu zuen kastoreak, eta zuhaitza mozten jarraitu zuen.

— Nire kastore laztana! Zuhaitzak ezin dira jan —egin zion agiraka Fum andreak.

— Urtegi Handia biltzeko behar dudalako egiten diot hozka —erantzun zion kastoreak, lehen baino pixka bat atseginago, norbaitek bere lanari piperrik ulertu gabe begira ziezaiokeela konturatzean pena hartu zuelako.

— Baina horrela nekatu egiten zara —esan zuen Fum jaunak.

— Hori ona da —adierazi zuen kastoreak.

— Zer diozu, nire kastorea! Hori oso txarra da —esan zuen Fum andreak—. Atsedeen hartu behar da.

— Zertarako? —galdetu zuen kastoreak, harrituta.

— Ez nekatzeko.

— Nik gustuko dut nekatzea! —adierazi zuen kastoreak, eta begirada susmagarri bat bota zien—. Atsedeen hartzea ez dut gustuko, eta zuek?

— Guk —Fumek elkarri begiratu zioten— atsedeen hartu baino ez dugu egiten!



Kastoreak zabal-zabal ipini zituen begiak. Ez zuen ezer esan; korrika alde egin zuen bere koloniarara.

Handik momentu batera, kastore guztiak soilgunean elkartu ziren, Fumen inguruan. Nagusienak galdetu zuen:

— Egia al da zuek atsedeen hartu baino ez duzuela egiten?

— Noski baietz, nire animaliatxo laztana —erantzun zion Fum andreak.

— Eta lan egiten ere ez zarete saiatzen? —nagusiak ziur egon nahi zuen.

— Baina lanak nekatu egiten du —adierazi zuen Fum jaunak, minduta.

Orduan, kastore guztiak negar-zotinka hasi ziren, etsita.

— Utzi negarrak. Zergatik deitoratzen gaituzue horrela? —oihukatu zuen Fum jaunak, urduri.

— Pena ematen diguzuelako —adierazi zuen negar batean nagusiak—. Ez duzue inoiz lanik egiten.


— Eta guri zuek ematen diguzue pena —saminduta zegoen Fum jauna—; ez duzue inoiz atsedeenik hartzen.

Denbora luzea eman zuten batak bestea konbentzitu nahian, baina inork ez zuen lortu bestea limurtzea.

Esaera hau baino ez zaigu geratu: “Kastoreak Fumen erruz bezala negar egitea”.

Itzulpena: Alicja Jankowiak
Zuzenketa: Amaia Donés Mendia

Gzdats



Zulo Kosmikoaren beste aldea begiratuz

Jende guztiak ez daki munduan unibertso bat baino gehiago dagoenik. Badaude unibertso Lodiak eta Argalak, Koloretsuak eta Puzgarriak, Keinukariak eta Erreakziozkoak. Badaude, baita ere, unibertso oso txikiak; eta Gzdatsak bizi direna, ezagutzen den unibertso onena eta txikiena da.

Unibertsoetako bakoitza erabat bereizita dago besteetatik, orokorrean ez du-eta batuk bestearekin inon topo egiten. Baina, topatzekotan, Zulo Kosmikoa deritzon egiten dute.

Gzdatsen unibertsoa hain txikia zenez, gure unibertso normalarekin topatu zenean sortu zen Zulo Kosmikoa oso txikia izan zen. Zulo minimo horretatik Gzdats txikiak baino ezin ziren pasa.

Egia esateko, gainerako Gzdatsek, handiagoak eta helduek, ez zeukaten gogo handiegirik beste unibertso batera joateko, bizi ziren lekuan ondo zeudela ziur baitzeuden. Eta, izan ere, batek bakarrik erabaki zuen, txikiak hain zuzen, zuloaren beste aldera igarotzea. Lagunek Gzdats Higitzaile deitzen zioten, edo Etengabe Hegan Egiten Duen Gzdats (Gzdats guztiak hegal laranja daukate), edo Gzdats Bereziki Kuxkuxeroa, baina, berak bere buruari Jakinmina Daukan Gzdats esaten zion.

Askotan gertatu ohi da amatxok okertzat hartzen duena guk abantaila gisa ikustea, eta hala izan zen Gzdats txikiaren kasuan.

Amatxok, jakina, nahi zuen Gzdats txikiak jakin-mina izatea, baina esan ohi zuen norbaitek gor geratuko ote den frogatu nahian belarriak ez garbitzea ez dela jakin-mina, jakin-nahikeria ergela baizik.

Dena dela, Gzdats txikiak helduen atentzio eza baliatu zuen Zulo Kosmikoaren beste aldera pasatzeko.

Hain zuzen, beste aldean Babespean ondoko Batzar Handia zegoen (Babespean Krakovia ondoko herri bat da).

Beraz, Babespean ondoan jakintsu zuhur asko zegoen, zulo hori zer ote zen igarri nahian, bat-batean zulutik Gzdats txikia hegaldatu zenean!

— Nor zara zu? —galdetu zioten jakintsu guztiak batera.

— Korrika egiten dudanean, korrikalaria naiz,

Hegan egiten dudanean, hegalaria naiz,

Beldurra dudanean, beldurlaria naiz,

Baina, oro har, Gzdats naiz,

Beraz, miretsi eta begira nazazu,

Gzdats hegalaria naiz! —erantzun zuen Gzdats txikiak, eta airean biratu zen; gero, hegoak zalapartaka astindu, eta Krakoviarantz hegaldatu zen.

Jakintsuak zulo azpian geratu ziren pixka batean, baina beste ezer atera ez zenez, joan egin ziren.

Eta, bitartean, Gzdats txikia basora joan zen. Lotsatu egin zen jakintsuek hain tinko begiratu ziotenean, eta agian horregatik egin zuen ihes horren azkar, ziztu bizian.

Nahiz eta oso kuxkuxeroa izan, besteek berari tinko begiratzea eta modu esanguratsuan kurrinkatzea ez zitzaion batere gustatzen; horrelako momentuetan, lotsak jota, hegalak more bihurtu ohi zitzaizkion.

Baina, basora iritsi orduko, norbaitek modu esanguratsuan kurrinkatu zuen berriro. Hegal laranjak dauzkan norbait inoiz ikusi ez zuen belatxarre bat zen.

— Halakorik! —esan zuen—. Halakorik! Hara! —errepikatu zuen—. Halakorik! —arretaz so egin zion Gzdatsi; berriro kurrinkatu, eta irmotasunez adierazi zuen:

— Halakorik!

— Gauza bera esan nahi nuen —karrankatu zuen kontrako norabidetik etorritako beste belatxarre batek—. Halakorik!


Gzdats nekatu samar zegoen ordurako; beraz, nahiz eta belatxarreek ia jakintsuek bezain zehazki begiratu, adeitsu galdetu zuen:

— Tiritonga apur bat lor al dezaket hemen?

— Halakorik! Zer tiritonga?! —galdetu zuten belatxarreek batak besteari begiratu.

— Nire unibertsoan —erantzun zuen Gzdatssek—, Gzdats guztiak tiritonga jaten dute.

— Begira! Hau da orduan Gzdats bat? —oihukatu zuten belatxarreek, eta tiritonga jaten duen benetakoko Gzdats bat ikusteaz harro hegaldatu ziren.



“Oso desatsegina da tiritonga inon ez aurkitzea eta guztiak nire hegal laranjengatik harritzea” pentsatu zuen Gzdatsek.

Handik gutxira, hegan abiatu zen, eta negarrez ari zen mutil bat ikusi zuen basoko soilgune batean eserita. Harengana hurbildu, eta galdetu zion:

— Zergatik ari zara tantaka? (ez zekien malkoak zirenik, Gzdatsek ez baitute inoiz negarrik egiten).

— Galdu egin naizelako —erantzun zuen mutilak—. Eta zu, nor zara?

— Korrika egiten dudanean, korrikalaria naiz,

Hegan egiten dudanean, hegalaria naiz,

Beldurra dudanean, beldurlaria naiz,

Baina, oro har, Gzdats naiz,

Beraz, miretsi eta begira nazazu:

Gzdats hegalaria naiz!

— Eta ni mutila naiz —esan zion mutilak—, eta bazkaritarako onddo bila genbiltzala ama galdu dut.

— Onddoak tiritonga moduko zerbait dira, ala?

— Ez dakit zer den tiritonga, baina onddoak jatekoa dira.

— Tiritonga jatekoa da! —erantzun zuen Gzdatsek—. Zure ama non dagoen ez baldin badakizu, hegaldia zaitez gora eta begiratu ingurura.

— Baina nik ez daukat hegalik! —atsekabetu zen mutila, eta negarrari indartsuago ekin zion.

— Utzi tantaka egiteari! —oihukatu zuen Gzdatsek—. Ni oso hegalari ona naiz!

Gora eta gora joan, eta baso ertzean mutilaren amatxo ikusi zuen oihuka:

— Hop, hop!

— Hop, hop! —oihukatu zuen Gzdatsek. Zirkulu handi bat egin zuen airean, eta mutilaren amatxoren aurreko adarrean eseri zen.

— Mutila soilgunean eserita dago. Lehenbailehen joan behar dugu, tantaka batean ari delako —esan zuen.

Amatxok Gzdatsek adierazitako norabidea hartu zuen, eta Gzdatsek gora eta behera egin zuen hegan amak bidea gal ez zezan.

Arazoa konpondu eta mutila bere amatxorekin topatu zenean, Gzdatsek tiritonga non aurki zezakeen galdetu zien.

Zoritxarrez, onddoak ez ziren tiritonga. Beraz, bi lagunak agurtu, eta bere unibertsoarantz abiatu zen, bazkaritarako iristeko. Babespean ondoko Zulotik igaro eta hain azkar joan zen, pixka bat baino ez baitzen berandutu, eta bere tiritonga bero zegoen oraindik.

Amatxo ez zegoen batere haserre.

— Badakizu, amatxo —esan zuen Gzdatsek—, Zulo Kosmikoaren beste aldeko unibertsoan ere badaude amatxoak.

— Zenbat aldiz esan behar dizut urrunegi ez hegaldatzeko —esan zuen amatxok, baina, egia esan, ez zegoen batere haserre.

Itzulpena: Sonia Kolaczek
Zuzenketa: Amaia Donés Mendia

Bronba



Bronba pentsakor

Bronbaren historia korapilatsua da, ustekabe, ezuste eta arazoz bete; alegia, Bronba bera beza-lakoxea. Izan ere, izaki txiki eta arrunten artean apartekoena da Bronba.

Bronbaren itxura ez da bereziki kezagarria, eta lehenengo begiradan ez dauka arreta era-karriko duen ezaugarririk. Katagorria baino pixka bat handiagoa da, arrosa koloreko ilajea du, eta gehiegixto nabarmentzen zaion sabelean ezinbestekoak diren gauzez betetako poltsa handi bat darama. Barruan honako objektu hauek aurkituko ditugu, besteak beste: prismatikoak, ba-lantza bat, egutegia, zazpi termometro, erlojua, jostun zinta, eta urre-koloreko diploma handi bat, gainean izkribu hau duena:

BRONBAk

Neurtzeko, pisatzeko eta emaitzak emateko
ziurtagiria dauka,
ikastaroa amaitu eta zehaztasun handia erakutsi duelako.

Eta hala adierazita gera dadin sinatzen dugu agiri hau.

Neurketa eta Pisaketako Bulego Zentrala



Zaila dirudi Bronbarena baino lan atseginago eta interesgarriago bat imajinatzeak.

Izan ere, Bronba leku batetik bestera ibiltzen da, eta neurtu eta pisatu egiten du, besterik ez. Honako honi, buztanaren luzera emango dio, zentimetrotan ez ezik, baita hazbetetan ere; beste horri, hegoen luzera kalkulatu dio; beste hari, berriz, tenperatura neurtuko dio, edo anaia txikia pisatuko.

Dena den, kalkuluetan oso zehatza izan arren eta presarik gabe aritu arren, Bronba, hasiera batean, ez zen konturatzeko zein zaila izango zen aukeratuak ogibidean jardutea, batez ere hausnartzera ohituta zegoen Bronba bezalako izaki batentzat.

Bronba guztiek, jakina denez, hausnartzea dute ohitura, eta agian horregatik izan da hain eskasa gerretan eta horrelako beste jai batzuetan izan duten parte-hartzea. Ekintza horiek inoiz ez baitira izan adimen sakonen, hau da, hausnarkorren gustukoak.

Eta egia da, ondo pentsatuz gero, eztabaida, borroka edo duelu bakoitza ekintza ilun eta nahiko monotonoa dela, edo, besterik gabe, aspergarri suertatzen dela, batez ere benetan sarkorra den espirituarentzat. Eta Bronba hau bereziki sarkorra zen Bronben artean; esan daiteke Bronben artean Bronbena zela.


Istorioren hasiera Fikanderrekin lotuta dago... Behin, Bronbak Fikanderri belarrien luzera neurtu behar izan zion. Fikanderrek Bronbaren poltsa horiaren barruan begiratu zue-nean:

— Ai ene! —oihukatu zuen—. Zenbat tresna!

— Egon geldi! —xuxurlatu zuen Bronbak—. Bestela, inoiz ez duzu jakingo zein luzera duten zure belarriek!

Fikander, jakina, berehala tentetu zen, eta Bronbak lasaitasunez eta zeremonia handiz neurtu zizkion belarriak: lehenik eta behin ezkerre, gero eskuina, eta gero, badaezpada ere, berriro ezkerre eta berriro eskuina.

— Zalantzarik gabe —adierazi zuen—, zure belarri bakoitzak hogeita hamahiru zentimetro eta sei milimetro dauzka. Nahi al duzu emaitza hau hazbetetan?



Fikanderren eskuin belarriaren neurketa zaila

— Eskerrik asko, baina nahikoa da nire belarri bakoitzak hogeita hamahiru zentimetro eta piko dauzkala jakitea —esan zuen Fikanderrek—. Orain, belarri-babesa eskatzean askoz errazago izango da dena.

— Noski baietz —esan zuen Bronbak, eta egutegira begiratu zuen.

— Taula bereziaren arabera, 18 neurrikoak behar dituzu.

— Oraintxe idatziko dut —esan zuen Fikanderrek, baina ez zuen ezer idatzi, eta termometroetako bati begira jarri zen.

— Zergatik jokatu duzu hain modu bidegabean —galdetu zion—, eta ez dizkidazu belarriak tresna hau erabiliz neurtu?

— Tresna hau tenperatura neurtzeko erabiltzen da —esan zuen Bronbak, Fikanderri termometroa eskutik kendu eta poltsa barruan gordetzen zuela—. Gaixotasun bat susmatzean besterik ez dut erabiltzen.

Baina gero, bakar-bakarrik etxera itzultzen ari zela, ideia bitxi bat bururatu zitzaion:

“Zergatik ezin dira Fikanderren belarriak termometroa erabiliz neurtu?”, pentsatu zuen.

“Bai galdera ergela! —erantzun zion bere buruari—. Tenperatura zergatik ezin den pisatu galdetzearen antzekoa litzateke”.

Eta nahiz eta saiatu zen era horretako arazoak berarengandik urruntzen, ez zuen bakean egotea lortu.

Bat-batean, poltsa horia pisutsuegia egin zitzaion; beraz, eseri eta kritikoki so egin zion poltsa barrenari.

— Benetan, tresnen kopurua izugarri handia da. Askoz erosoagoa litzateke ziurtagiria eta den-dena neurtzeko balioko didan tresna bakarra eramatea.

Gai hartaz zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta presazkoagoa bihurtu zitzaion kontua argitzeko beharra: zergatik ez dago dena neurtzeko balio duen tresnarik?

Aste batzuk hausnarrean eman eta gero, ez zuen inolako ondoriorik atera, eta Neurketa eta Pisaketako Bulego Zentralera joan zen. Elkarrizketa bat eskatu zuen Neurtzaile Nagusiarekin.

Neurtzaile Nagusia poztu egin zen bera ikustean, baina, etortzeko zergatiak azaldu zizkionean, irribarre egiteari utzi eta serio-serio so egin zion:


— Lankide maitea —esan zion—. Gure Bulegoak urteak daramatza dena neurtuko duen tresna asmatu nahian. Baina kontua uste baino konplexuagoa da. Neurtu ezinezko arlo asko daude. Ez dago edertasuna neurtzeko tresnarik, alaitasuna edo tristetasuna neurtzea oso zaila da, eta dena neurtzeko tresna bakarra egitea ezinezkoa da. Momentuz, behintzat.

Bronba, beraz, elkarrizketagatik eskerrak eman, eta mundura atera zen bere poltsa hori pintsua lepoan hartuta. Egia esateko, hemen galtzen da hain konplexu eta misterioitsua dirudien istorio hau, baina pertsonaiatzat Bronbak dituzten istorioekin sarritan gertatzen da hala.

Neurketa eta Pisaketako Bulego Zentraleko Neurtzaile Nagusiarekin elkarrizketa izan eta gero, honako poema hau idatzi zuen Bronbak:

Hainbat urtez noraezean ibilita,
bidexka ugari ezagutu dut.
Neurria falta zait, ordea:
nola neurtu nire bidaiak?
Egutegiarekin akaso,
hurrengo orrialdea noiz eroriko,
ala Azuntza eta Fikanderrengandik entzundako
hitz atseginen kopuruaren arabera?
Ala tresnek emandako
batura guztien batura baliatuz,
ala (Fum baten aholkuaren arabera)
atsedenaldiak zenbatuz?
Agian, aho guztien irribarreak
lerro batean gehitu behar dira,
edo, agian, beroki bakoitzak
behar du bere zenbakia?
(Sinetsi nahi ez dudan arren)
nire ibilbideen emaitza komunik
ez dago. Eta dena batera
neurtzeko aukerarik ez dago.

Bizitzaren bideak zenbatzea zaila da,
baina oso oker daude
Bronbaren hutsezintasuna
zalantzan jarri nahi dutenak!



Itzulpena: Sonia Kolaczek
Zuzenketa: Amaia Donés Mendia

Fikander



Fikander ez da beste guztiak bezalakoa. Maltzurrek esaten dute Fikanderrek edozer egingo lukeela ezberdina izatearren, baina hori maltzurkeria besterik ez da. Labur esanda: Fikanderrek, poeta denez, arreta handiagoa jartzen die besteentzat hain garrantzitsuak ez diren gaiei.

Adibidez: behin batean, Putxkaken eta Patxkaken arteko futbol partida ikustera joan zen, baina, partida ikusi ordez, atzera begira egon zen denbora gutzian, Malbatxo behatu nahian.


— Futbol partida batean, soilik Fikander da maitemintzeko gai —esan zuten maltzurrek—. Baina, hori bai, Malbatxo zinez ederra da.

2-2 berdinketarekin bukatu zen partida historiko hartan, Fikander benetan maitemindu zen Malbatxoz. Inguruan oihuak entzuten ziren, txaketak dantzan zebiltzan airean, ohituraz hain lasaia zen Fuma ozen ari zen txistuka okarina handi batekin, As txikiek buztanetik tiratzen zieten katagorriei, Azuntzek txistuka jarraitzen zuten, eta katuek pankartak airean mugitzen zituzten; bitartean, Fikanderrek ez zuen Malbatxori begiratu besterik egiten!

Eta horrela hasi zen poeta eta ordu-emailearen arteko maitasun istorioa.

Malbatxo ordu-emaileak telefono konpainia bateko zentrolean egiten zuen lan, eta orduak ematen zituen ahots atsegina eta beroaz. Beste pertsona batzuk ere bazeuden han, jakina, ordua edozein unetan galde baitzitekeen telefonoz, baina gehienetan Malbatxok egiten zuen lan hori, oso ahoskera garbia baitzeukan eta arautegia zehaztasunez betetzen baitzuen beti.

Partidan oso urduri jarri zen (konturatu egin baitzen, noski, Fikander begira zeukala), baina oso apala zenez, ez zuen pentsatu bere edertasunagatik zenik.



Lehen begiratuan

Eta Fikander hain lotsatia zenez, ez zen ausartu harengana hurbiltzen eta azaltzen zergatik egiten zion so.

Ehun orrialdeko olerki bat idaztea gauza bat da, eta futbol partida batean ezezagun bati bi esaldi esatea, beste bat.

Partida bukatu ondoren, Fikander hurbil zekiokeen Malbatxori, eta aditasunez galdetu ea partidaren emaitza justua iruditu zitzaion, edo ea berarekin mintzatu nahi zuen. Baina ez. Horren ordez, Malbatxoren atzetik abiatu zen, hari begiratzeari ezin utzirik. Malbatxo asko izutu zen, eta pausoa arindu zuen. Etxean sartu orduko, atea giltzaz itxi eta Gaitan Kurrinkari deitu zion.

— Eta nolakoa da pertsona susmagarri hori?

— Oso lepoko luzea darama, lepoaren inguruan hainbat aldiz korapilatua; belarri bakoi-tza 30 bat zentimetrokoa du; oso begi handiak ditu, garagardoaren kolorekoak eta tristeak; larruzko txamarra beltz bat darama soinean, sigi-saga hori bat daukana; bi liburu daramatza eskuetan, eta nire leihoari begira dago etengabe —erantzun zion Malbatxok.

— A! Fikander da! —oihukatu zuen Kurrinkak.

— Kriminal arriskutsu bat al da?

— Malbatxo, lotsatu egin behar zenuke —esan zioen detektibe ospetsuak—. Ez al duzu Fikanderren “Nire belarrien itzal madarikatua” poema irakurri?

— Ez, azkenaldian oso gutxi irakurtzen dut. Jende askok jakin nahi du ordua...

— Irakurtzea samurtuko dizun ideia bat daukat, baina horretaz gero hitz egingo dugu. Orain, esan Fikanderri telefonoa hartzeko.

Malbatxok, beraz, leihoa ireki eta esan zuen:

— Fikander jauna, Gaitan Kurrinkak telefonoa hartzeko eskatzen dizu.

Fikander goitik behera gorritu zen, eta Malbatxoren gelara sartu zen telefonoa hartzera.

— Kaixo, Fikander al da beste aldean? —galdetu zuen detektibeak.

— Zentzu batean, bai —erantzun zuen poetak, gero eta gorriago.

— Ez da posible zentzu batean pertsona bat izatea eta beste batean ez —esan zuen Gaitanek.

— posible da —erantzun zuen Fikanderrek tristura handiz.

— Baina zu zara? —kezkatu zen Gaitan.

— Ni naiz, bai —erantzun zuen Fikanderrek—, zentzu batean.

— Zer gertatzen zaizu, Fikander? Zer demontre dela-eta zabilta Malbatxoren atzetik?

— Ai! —egin zuen hasperen—. Ederki...


— Azaldu zehatzago: zer dago ederki?

— Ezin dut. Izenak ederki osatzen du errima... urdaitxo... hestebetetxo... hirustatxo... ederki...

— Uste dut badakidala zer gertatzen den. Eman Malbatxori.

— Zer?

— Telefonoa.



Fikanderrek, peonia bezain gorri, Malbatxori itzuli zion telefonoa, baina ez zuen hitzik esan. Detektibeak, orduan, Fikander poeta ospetsua zela azaldu zion Malbatxori, eta, poetek ohitura duten gisan, hausnarketetan galdu eta nahi gabe edo jarraitu ziola, baina, ziur aski...

Poeta ospetsuak, halere, gertatutakoa adeitasunez azaldu beharrean, lotsatuta eta triste egin zuen ihes Malbatxoren pisutik.

Hala ere, hurrengo egunean, Fikander bere leihoaren azpian zegoela ikusi zuen Malbatxok, lore sorta erraldoi bat eskuetan zuela. Liliak eta arrosak eta krabelinak, eta, oro har, lore mota asko zegoen han nahastuta. Hain izan zen hunkigarria, ezen Malbatxo, aurreko eguneko hondamendia guztiz ahaztuz, kanpora atera baitzen.

— Egun on! —esan zuen—. Niretzat al dira lore horiek?

— Egun on! Bai —erantzun zuen Fikanderrek.

— Oso jatorra zara. Pena da atzo luzarago geratu ez izana.

— Barkatu —esan zuen Fikanderrek, eta irribarre egin zuen, beharbada bere bizitzan lehenengo aldiz, artista serio eta pentsakorra izan baitzen beti.



— Loreak hartu eta loreontzi batean ipiniko ditut lantokian —esan zuen Malbatxok—. Etorriko zara niregana lana bukatzen dudanean?

— Bai, noski! —esan zuen Fikanderrek.

— Gero arte, beraz! —agurtu zen Malbatxo—. Hirurak aldera itzuliko naiz.

— Gero arte! —esan zuen Fikanderrek, eta irribarre egin zuen berriro; tristexego, ordea, Malbatxo bazihoan eta.

Malbatxo ere Fikanderrez maitemindu zen. Epe luzeagoa behar izan zuen, noski, poetek baino ezin baitute gai batean hainbesterainoko arreta jarri futbol partida batean maitemintzeko. Baina, hala eta guztiz ere, lanera zihoala pentsatzen jarri zen zeinen originala zen Fikander hura, zein interesgarriak ziren idazten zituen poemak (aurreko egunean eskatu zizkion Pañtxari), zein handiak ziren haren begiak, zein jatorra zen haren irribarre... Bat batean, Katagorriren ahotsa heldu zitzaion atzetik:

— Ez nuen zuregandik halakorik espero, Malbatxo...

— Egun on —agurtu zuen Malbatxok.

— Ez nuen halakorik espero —errepikatu zuen Katagorrik—. Udal lorategiko zaindaria naiz, eta oraintxe konturatu naiz norbaitek lore batzuk hartu dituela gaur gure lorategitik. Nor

izango eta... a zer nolako ezustea Malbatxo izan dela jakitean! Eska zenitzakeen behintzat, pentsatu gabe hartu beharrean...

Malbatxok, ez dago esan beharrik, bere gain hartu zuen errua, baina Fikander agertu zenean zaldiko-maldikora elkarrekin joateko asmoz, zera adierazi zion:

— Sentitzen dut, baina arazoak eragin dizkidazu udal lorategiko loreak hartzeagatik, eta, zoritxarrez, ezin izango dizut zaldiko-maldikora lagundu.

Hain tonu irmoan esan zuen, ezen Malbatxoz ere tristura handi bat jabetu baitzen, eta Fikander isilik geratu zen berriro.

“Harri eta zur gelditu naiz”, pentsatu zuen, eta alde egin zuen.

— Hamabiak eta berrogeita hamahiru, hamabiak eta berrogeita hamahiru —esaten ari zen Malbatxo entzungailutik honako hau heldu zitzaionean:

Aurrean zure etxe zuria zegoen
Ni harri eta zur gelditu nintzen
Nire bihotza taupadaka zebilen
Baina gero ikusi nauzu urruntzen.
Ai! Berri mingarria da eman didazuna:
Nik loreak moztu ditut, eta zuk, harremana.

— Hamabiak eta berrogeita hamahiru, hamabiak eta berrogeita hamahiru —errepikatzen zuen Malbatxok. Bere berunezko borondateari esker soilik lortu zuen arauak ez haustea.

Jendetza artean ikusi zintudanean
Nengoen eroa bihurtzeko ertzean
Jarraitu zintudan ezkutuka
Horrela bizitzeaz ez nengoke damututa.

Malbatxok bazekien elkarrizketa pribatuak debekatuta zeudela konpainiako araudi zorrotzean. Malkoak agertu zitzaizkion begietan.

— Hamabiak eta berrogeita hamalau, hamabiak eta berrogeita hamalau —jarraitu zuen.

Baina gozoa izan zen momentua
Nahiz eta nagoen guztiz kolpatua
Agurtzen zaitut, minez eta izuz beterik gogoa
Zer geratzen zait? Banoa.

— Hamabiak eta berrogeita hamalau, hamabiak eta berrogeita hamalau...

Entzungailuak eskegitzen ateratako burrunba entzutean, Malbatxo malkotan lehertu zen. Inori ezin zaio opa behararren eta sentimenduen artean erabakitzea. Eta Malbatxo ederrak bizi berri zituen bi minutu haiek, hamabiak eta berrogeita hamahirutik hamabiak eta berrogeita hamabostera alegia, bere bizitzako zailenak izan ziren.

Eta Fikanderrek hanka sartu izan ez balu, auskalo nola bukatuko zen istorio hau. Etsipenez jota, telefono kabinatik atera zen bere baitan “Zer geratzen zait? Banoa...” behin eta berriro errepikatuz. Aurretik egindako bizkar-zorroa bizkarrean jarri eta aurrera abiatu zen. Liburu guztiak ez baitziren motxilan kabitzen, batzuk eskuetan zeramatzan. Bere lepoko luzea laxatzen ari zitzaion pauso bakoitzean, eta lurrerantz irriratzen ari zitzaion, harik eta azkenean harekin behaztopa egin zuen arte. Erorketa hain izan zen gogorra, ezen kontzientzia guztiz galdu baitzuen, eta esnatu zenean hitz nahastuak errepikatzeari ekin zion: “Zer joaten zait? Geratuko naiz...” eta Malbatxo makurtuaren aurpegi ederra ikusi zuen bere gainean. Buruko benda aldatzen ari zitzaion momentu hartan. Hain zorigaitzekoa (edo zorionekoa) izan zen estropezua, ezen hiru egun eman behar izan baitzituen ohean. Goizero, Bronba etortzen zitzaion beirazko termometroaz temperatura neurtzera. Malbatxok aran zukua egiten zion, eta Gaitan Kurrinkak magnetofono, erloju eta telefonoaren funtzioak betetzen zituen makina berezi bat asmatu berri zuenez, nahi zuenean joan ahal izaten zuen lanera, Fikander bere onera itzuli zenean ere bai. Katagorri berriro eskatu zioten barkamena, eta barkamen-poema berezi bat irakurri zioten elkarrekin: “Pena alferrak, lorategi hutsa”. Handik aurrera oso gutxitan daude bakarrik, baina ipuinaren zati hau poetari utziko diogu...



Itzulpena: Sonia Kolaczek
Zuzenketa: Amaia Donés Mendia

Gaitan Kurrinka



Zer, edo hobeki esanda, nor da Gaitan Kurrinka?

Batzuek luze hitz egin dezakete hari buruz, beste batzuk haren izen edo abizena ahoskatzearen beldur dira, azken batzuek haren laguntza jaso baina eskerrak emateko denborarik ere ez dute izan, dagoeneko desagertu delako.

Izena eta abizena dituen animalia bakarra da (jaso dituen hamaika ezizenak ez aipatzeagatik), benetan detektibea den animalia bakarra.

Laguntza, eskatzen ez zaionean ere ematen du; igarkizunak asmatzen ditu, errudunak atxilotu (bai, bai!) eta bidegabekeriaren sekretuak ezagutarazten ditu, Legearen izenean borrokatzen delarik beti, noski.

Kondairak dio labirinto batean jaio zela, baina, dedukzio logikoaz baliatuz, berehala lortu zuela handik ateratzea.

Orduz geroztik, animalia-delinkuentziaren kontrako guda aldarrikatua du. Hain izan da guda hau irmoa, ezen azkenaldian lana bukatu zaion, eta beraz, dibertimendu-aldizkarietako buru-hausgarriak sortzen eta erloju zaharrak konpontzen igarotzen du denbora.

Baina garai batean lanez lepo egoten zen Gaitan Kurrinka, eta inoren laguntzarik gabe gainditu behar izaten zituen pilatzen zitzaizkion oztopoak: otso-hiltzaile, lepahori-lapur eta beste gaizkile zital eta arriskutsu batzuen kontra borrokatu behar izaten zuen bakar-bakarrik.

Gaitan Kurrinkak lan irmoa egiten zuen beti, eta inoiz ez zen aurretik erabakitako egin-beharretatik aldentzen.

Hala ere, beharrezkoa da argitzea faltsuak direla indar amaigabea egozten diotenen esamesak. Alderantziz, guztiok bezala nekatzen zen.

Batzuetan, buztaneko min erreumatikoaz kexatzen zen, batez ere udazkeneko gauetan, kasu luze eta korapilatsuren bat ikertu behar zuenean.

Ematen du bere beroki berde higatuak (poltsikoetan kalitate oneneko tiragoma, lupa eta txintxeta-kutxa bat zeramatzan) ez zuela beti udazkeneko hotzaren kontra ondo babesten.

Jakina, Gaitan Kurrinkaren abenturei buruz liburu oso bat idatz daiteke (berez, horrelako liburu bat idazten ari omen dira dagoeneko; egileak, Bronbak, behin-behineko izenburua ere eman dio: “Gaitan Kurrinkaren abenturak”). Baina gure asmoa ez da hain konplexutasun handiko jardueraren berri ematea, gure pertsonaiaren nortasuna eta izaera modu apalean deskribatzea baizik.

Deskripzio honetan ezin da ahaztu Kurrinkak “Pazientzia Handiko Detektibeen Martxa” konposatu eta idatzi zuela. Hona hemen poema:

Pazientzia, detektibearen bertute.
Ikerketan iraunkorra izan zaitetz,
beti izan zaitetz!
Pentsatzeak egia azaleratzen du,
beraz, trebetasunez ondorioztatu eta iritzia eman ezazu,
trebetasunez iritzia eman ezazu!

Leloa:

Gora ta gora arrazoiketa!
Eta logika hotza!
Zorrotz egiaztatu behar da
zer den kausa eta zer ondorioa.
Gora ta gora!

Beraz, bide berriak ezagutu ditzagun,
buruan plana ezkutatuz bidaiatu dezagun,
beldurrik gabe bidaiatu dezagun!
Lagun diezaiegun
guk baino zailago duten izakiei,
halako izakiei!

Justizia nagusi izan bedi
gure pausoak helarazten ditugun lekuetan,
leku guztietan!
Eta guri, arrisku guztien ondoren,
gusta bekigu andere-mahats zuku freskoa,
zuku gozoa!



Andere-mahats zukua zen Gaitan Kurrinkak hartzen zuen edari bakarra. Gaizkile jenial esaten zaiorekin dueluan aritu zenean ere edan zuen... Baina has gaitezen hasieratik. Behin batean, urriko goiz lainotsu batean, zuhaitzetatik erortzen ziren hostoek arrastoak ezabatzen zizutzelarik eta udazkeneko euriak konbikzio-frogak, Gaitan Kurrinka 17 zenbakidun etxe handi baten atzean ezkutatuta zegoen.

Asteak zeramatzan krimen oso sofistikatu baten atzetik, baina gaizkileak beti egiten zuen ihes eta, gainera, etengabe sartzzen zion ziria. Bere aurkaria bereziki argia zela konturatu zen Kurrinka. Trebetasunez saihesten zituen bere tranpa guztiak, eta are gehiago, batzuetan adarra ere jotzen zion detektibe nekazinari. Esneketaria 17 zenbakidun etxetik ateratzen ari zen momentua baliatu zuen Kurrinkak ezkutuka sartzeko, zera pentsatzen zuen bitartean: “beharbada garaiz iritsiko naiz, beharbada...”.

Zorigaitzez, hirugarren solairuko ate aurrera heldu zenean, esne botiletako bat hutsik zegoela ikusi zuen. Beti gertatzen zitzaion gauza bera. Aspaldi egiaztatua zuen lapurra zokomiran ibiltzen zela Hiri Handiko kaleetan, beti solairu ugariko 17 zenbakidun etxeak hautatuz eta esnea botila batetik soilik desagerraraziz (nahiz eta esneketariak ia ate guztien aurrean uzten zituzten botilak).

Misterioa zen zein ate aukeratzen zuen eta zergatik. Ezinezkoa zen egunero 17 zenbakidun etxe guztiak bisitatzea, eta espero behar zen Gaitan Kurrinkak halako batean igarkizunaren gakoa aurkituko zuela nolabait.

Detektibeak asko zekien. Bazekien, adibidez, nor zen bere aurkaria. Haren izena beldur eta begirunez ahoskatzen zuten kriminal klandestino izutuek; poliziak, berriz, gogo txarrez eta lotsatuta: Makabiti Katua.

Makabiti pertsonaia mitikoa zen ia. Esaten zen katu normal baten itxura zuela, Hiri Handiko bazter batean bizi zela eta bera zela diru gutxiren truke lapurreta konplikatuenak antolatzen zituen jenio harrapaezina.

Inork ez zuen Makabiti aurrez aurre ikusi; haren kolore, arraza eta tamainari buruzko informazioak kontraesankorrak ziren. Baina Makabitik jan egin behar izaten zuen, eta, horregatik, Gaitan Kurrinkak, burugogor, 17 zenbakidun etxe guztiak kontrolatzen zituen. Orduan ere, krimenaren gertalekuaren ikerketak ezer gutxi argitu zuen. Txaparen metalezko xafla fin-finean egindako zulo borobil bat, gehiagorik ez, ezta atzaparraren aztarnarik ere. Leiho guztiak ondo itxita zeuden.

Gaitanek arreta handiz aztertu zuen ingurua. Ateak 33 zenbakia zuen eta Sędzimir Twaróg jaunarena zen. Datu horiek agendan idaztean, aurrekoak erreparatu zituen, eta pentsamendu batek, tximista balitz bezala, burua argitu zion.

Arratsaldean txalet-auzoaren kaleetan zebilela, zenbatzen jarraitu zuen. Jerzy Pac: zortzi letra gehi 17, 25 da! Zoragarria! Jabearen izen eta abizenaren letren batuketak eta horren eta etxebizitzaren zenbakiaren arteko kenketak 17 eman behar zuen. Horrelako bat-etortze bat gertatzen zenean soilik lapurtzen zuen Makabitik esnea!

Ez zen gauza handia, baina bazen zerbait. Berandu arte ikertu zuen biztanleen zerrenda, eta, azkenik, arriskatzea erabaki zuen. Hurrengo egunean, Zofia Patyczek anderearen etxe inguruan ezkutatuko zen. Etxebizitzaren zenbakia: 30; eraikinarena: 17, jakina!



Hankaz gora zegoen zakarrontzi zahar baten azpian ezkutatu zen gure protagonista, esneketaria noiz agertuko zain. Eskaileretan pausoak isildu zirenean, Gaitan Kurrinkak arnasa atxiki zuen. Karranka isil bat, gero beste bat, eta eskuetan eskularru zuriak zituen katu beltz dotore bat atera zen zakar-husgailutik soinurik egin gabe, lasto mehe batekin esnea edateko asmoz.

Bat-batean, zakarrontzi azpitik detektibearen ahotsa heldu zen.

— Geldi hor, Makabiti, tiragomaz apuntatzen ari naiz! Ez saiatu trikimailu bakar bat ere egiten!

Azpmarratu behar da Makabiti azkar lasaitu zela eta, ustekabeen harrapatuta izan arren, ez zuela harridurarik erakutsi.

— Gaitan Kurrinka jauna? —galdetu zuen—. Asko entzun dut zutaz! Ados —egin zuen hasperen—, galdu egin dut!

Gaitan hurbildu egin zitzaion, eta tiragoma jaistearekin batera esan zion:

— Orain, behin ikusi zaitudala, ez daukazu ihesbiderik; edonon aurkituko zintuzket!

— Zer gertatuko da nirekin? —galdetu zuen Makabitik.

— Ba, ez dut uste poztuko zinatekeenik zure burua biktimei entregatuko banie —xuxurlatu zuen Kurrinkak.

Makabitik hotzikara bat sentitu zuen, eta bibrisak erori zitzaizkion; itxura zinez tamalgarria zuen.

— Egia esan, niri ere konponbide hau ez zait egokia iruditzen —adierazi zuen detektibeak—. Horrelako kasuak gure artean, animalion artean konpondu behar ditugu. Emango dizut hobetzeko aukera, errehabilitazioaren aldekoa bainaiz! —jarraitu zuen—. Baina orain irten gaitezen hemendik behingoz, bestela, nahiz eta ez duzun botila esne hau hasi ere egin, biok kolpatuko gaituzte. Etxean hitz egingo dugu.

Gaitan Kurrinkaren gordeleku beroan eseri zirenean, detektibeak jarraitu zuen:

— Biok ondo dakigu ez zarela edonor, Makabiti! Horregatik, ohore handiko katutzat hartu nahi zaitut. Biok ondo dakigu frogatu dudana garrantzirik gabeko krimena dela azken finean. Ez zaizu ezer larririk gertatuko, baina nahikoa izango da zure aktibitate kriminala gainbehera joan dadin. Nire artxiboan zaude, eta hemendik aurrera, ziurrenik, behin baino gehiagotan sartuko duzu hanka. Hona hemen nire baldintzak: aktibitate kriminala goitik behera utziko duzu, lapur arruntei ez diezu aholkurik emango, ezta bestelako laguntzarik ere, kalte guztiak konponduko dituzu, ahal den kasuetan, eta orain arteko bizimodua bukatutzat hartzen duzula hitzemango didazu.

Makabiti bere pentsamenduetan murgildu zen.

— Ez da hain erraza —egin zuen miau—. Etxerik ere ez dut.

Bat-batean, mahai gainean zegoen xake-jokoa begiztatu zuen, eta argitu egin zitzaizkion bere katu-begiak.

— Gaitan jauna —hasi zen—, barka iezadazu ausardia, baina erabakia hartu aurretik jokatuko al ditugu partida batzuk? Beti amestu dut zu bezalako aurkari bat izatearekin.

Kurrinkak gogoz onartu zuen, sentitzen baitzuen gustukoena izango zuen partidetakoa bat izango zela hura, asko zegoen-eta jokoa, Makabiti zuzen bizitzera konbentzitu behar baitzuen, hain zuzen.

Kanpainak 12 partida izango zituela onartu zuten. Ba al dago baliabiderik bi adimen paregabe horien arteko borroka deskribatzeko?



Eguzkia ortzian atera eta berriro ezkutatzen zen, eta haiek, bitartean, partida bat bestearen atzetik jokatzeko zuten. Detektibeak andere-mahats zukuia edaten zuten, eta bere gonbidatu bereziari esnea eskaintzen zion.


Eta gertatu behar zuena gertatu zen. Gaitanek irabazi zuten. Eta Makabiti Katuak delinkuentzia munduarekin harremanik izango ez zuela hitzmateaz gain, noizbehinka bisitatzen utziko ote zion galdetu zion Kurrinkari, xake-jokoan errebantxa hartu ahal izateko.

Gertaera horien deskribapen sakonagoa Bronbaren liburuan aurkituko duzue. Eta Bronba, bide batez, zalantzetan dago, titulua aldatzea pentsatzen ari baita: “Makabiti Katuaren Errehabilitazioa”.



Itzulpena: Sonia Kolaczek
Zuzenketa: Amaia Donés Mendia

Viceversa basatiei buruzko lehen berriak



Ispiluak misteriotsuak dira.

Ez dago dudarik: ispiluetan Viceversa basatiak bizi dira, alegia, Animalia Islatuen mota berezia.

Pentsatu al duzue inoiz zer den ispilu baten aurrean dagoen ispiluan islatzen dena? Ispilua-
ren aurrean dagoen ispilua, eta alderantziz, jakina! Baina halako alderantzizko islatzea hain da
aspergarria, ezen, denborarekin, ispilu batean bestean ez dagoen zerbait agertzen hasten bai-
ta. Eta, halako batean, ispiluen arteko desitxuratze horiek Viceversa basatien sorrera eragiten
dute.

Viceversek mota askotako itxurak hartzen dituzte, baita sofistikatuak ere.

Badute oso berezkoa den ezaugarri bat ere: inoiz ez dakite zein den hanka ezkerre eta zein
eskuina.

Berez, Viceversak talde handietan bizi dira; hala ere, zaila izaten da Viceversak ikustea, gi-
zakiengandik azkar-azkar ezkututzen baitira.

Herri ohitura, kantu, kondaira eta tradizio interesgarri ugari dituzte, eta ez da batere zuzena
“basatiak” izendatzea; alabaina, izen hori eman zitzaien ispiluan begiratzen den bakoitzean ikus
daitezkeen eta batere interesgarriak ez diren Viceversa normalengandik ezberdintzeko.

Haien jai nagusian —Islatze Handiaren Egunean— abesten duten ereserkia kultura aberas-
tasunaren ikur da:

Ispiluetako kristalak distiratuko direnean,
beirok argiz izarniatuko duzuenean,
norberak asma dezala
isla are interesgarriagoa.

Zer ona den ispiluan hirugarren aldiz
norberak bere buruari begiratzen dionean, antzekoa ez izatea,
zer ona, eskuinaldetik eskuma
eta parean vice versa izatea.

Hona hemen Islatze Handiaren Eguneko kondaira:

Oso aspaldian, munduan oraindik ispilurik ez zegoenean, Viceversen bizimodua gogorra eta gabeziak bete zen. Xirripatik urmaelera, urmaletik errekastora eta errekastotik iturrira bidaiatzen ziren islatze bikoitza delakoa aurkitzeko itxaropenez. Izan ere, halako islatzeak soilik bermatzen du haien ongizatea.

Orduan inork ez zuen ispiluz betetako dantzalekuekin edo antzerkirako gela handiekin amestu ere egiten. Leihoetan jartzeko kristal arruntek eskuraezinak ziruditen; dena den, oraindik ez zeuden asmatuak.

Halako egun batean, berri berezi bat heldu zitzaion. Oso urruneko herrialde batean errege bat bizi omen zen, gauzak primeran islatzen zituen tresna bat zuena eta egun osoa bere buruari so igarotzen zuena.

Berria ekarri zuten enarak oso aztoratuta zeuden, eta kontatu zuten erresuma osoa hondamenera zihoala eta erregeak bere buruari begiratu besterik ez zuela egiten.

Orduan, Viceversa guztiak bildu ziren bilera handi batean eta erabakia hartu zuten: baten batek hara joan beharko zuen egoera aztertzerako. Baina inork ez zuen hain biadaia luzea egin nahi. Beraz, zozketa bidez hautatu zuten boluntarioa.

Viceversa itsusi-itsusi bati egokitu zitzaion. Viceversa basatiak, oro har, ez dira bereziki politak, baina hura itsusienetako bat zen. Hain zen itsusia, ezen beretarrek ere Piztia deitzen baitzioten. Imajina dezaket zein zaila izan behar zuen urruneko mendiak zeharkatzea!

Zeharo akitua heldu zen jauregira eta, nekearen nekez, ureztailu batera sartu zen, eta handik errege-konketara. Hura bai zorte ona, lehen ahaleginean zuzenean heldu izana erregearenera!

Honako hau ikusi zuen Piztiak: erregeak, goizean altxatu berri eta artean garbitu gabe, eskuetan zeukan lauki-formako kutxa bati begiratu bat egin eta bere buruari esan zion:

— Ai, ai, ai, a ze errege ederra naizen! Benetan! Eta ze begi distiratsuak ditudan, zelako sudurtzua, eta koroa hori ze dotorea den!



Errege gaiztoa

Piztiak ondo begiratu zuen, eta ohartu zen erregearen eskuetan ispilu bat zegoela, munduko lehen ispilua, hain zuzen ere.

Luze pentsatu gabe, salto bakar batean ispiluaren barnera sartu zen. Bai eroso sentitzen zela han! Baina, zoritxarrez, artean ez zekien nola ezkutatu, eta erregeak ikusi egin zuen.

— Zer demontre da hori? —harritu zen—. Itxura hau al daukat?

— Are txarragoa —esan zuen Piztiak, eta hain keinu itsusia egin zuen, ezen erregeari ma-sailezurra erori baitzitzaion ia-ia.

— Ui! —ikaratu zen erregea—. Zer da hori?

— Are txarragoa bihurtuko da zuretzat bakarrik gordetzen baduzu —murmuratu zuen Piztiak.

— Zer? —galdetu zuen erregeak.

— Eskuen artean duzun hori —esan zuen Piztiak.

— Ispilua? Baina ispiluak oso garestiak dira!

— Eta zer? Bere buruari bakarrik begiratzen dion eta mendekoen zoriontasunaz pentsatzen ez duen erregea ez da benetako erregea! —adierazi zuen Viceversak, eta egin zuen keinuak erregea goragaletu zuen.

— Geldi, geldi! —egin zuen garrasi erregeak—. Oraintxe hasiko naiz mendekoen zorion-tasunaz pentsatzen!

— Hobe duzu hala egitea! —egin zion mehatxu Piztiak. Aldi berean, Viceversari begiak atera zitzaizkion, itotzen ariko balitz bezala.

— Hori ez, hori ez! —oihukatu zuen erregeak—. Banoa!

Eta, orduantxe, ispilua alde batera utzi eta lasterka alde egin zuen jendea hobeto bizi ze-din lan egitera eta ispiluak fabrikatzen hasteko aginduak ematera. Beste agindu bat ere eman zuen: norberak begira ziezaiokeen bere buruari ispiluan, baina neurritz, bestela burutik egingo zitzaiolako.


Piztia beste hiruzpalau aldiz agertu zitzaion erregeari, eta benetan hobetu zela ziurtatu zue-
nean, beretarrengana itzuli zen garai ona heldu zela adieraztera.

Piztia ispiluan lehenengo aldiz agertu zen egunean ospatzen da Islatze Handiaren Eguna.
Piztiak eta bere ondorengoak, berriz, eskubidea dute beren buruari ispiluan gehiegi begiratzen
diotenen aurrean edota agintari txarrak direnen aurrean agertzeko.



Itzulpena: Sonia Kolaczek
Zuzenketa: Amaia Donés Mendia

Pixtimutzel eta bere matxinada




Pixtimutzelak animalia autotematikoak dira. Horrek esan nahi du haien elkarriketen tema nagusia etxetzat dituzten autoak direla.

Fabrika guztietan ondo baino hobeto dakite muntaketa-katetik atera aurretik auto bakoi-tzean Pixtimutzel familia bat sartzen dela eta ekoitzi berria den autoaren bazter guztietan ez-kutatzen dela.

Batzuetan, Pixtimutzelek asko maite dute etxetzat duten autoa, eta han geratzen dira bizitza osoan. Baina gerta daiteke beste familia batekin noizbehinka autoak elkartrukatzea. Hala ere, berdin zaie leku bati lotuta egotea ala ibilgailu batetik bestera ibiltzea. Edozein kasutan, autoez mintzatzen dira.

Txotxatuz eta aspertuz, eldarniatuz eta murmurikatuz, solastatuz, kexatuz edota kontatuz eta eskarmetua elkartrukatuz pasatzen dituzte egunak. Gai bakarra dute. Autoak. Beti!



Pixtimutzel txikien jolasa

Hona hemen Pixtimutzelen elkarrizketa tipiko bat:

— Ixo! Badirudi motorra gaizki dabilela —alarma piztu du aitak.

— Ixo, umeak —agiraka egin die amak.

— Ixo, Pixtimutzel halakoa! —esan dio Pixtimutzel txikiak anaiari.

Familia osoak belarria luzatu du aitari begiraturaz.

— Ez da hori —erabaki du aitak—. Martxa aldaketa besterik ez da.

— Hainbat urtez bizi izan zara hemen eta oraindik ez dakizu noiz aldatzen diren martxak —errieta egin dio amak.

— Aita, zein markakoa da hau? —galdetu du seme gazteenak.

Aitak ihes-hoditik burua atera du urruntzen ari den autoa behatzeko.

— Pixtimutzel ingelesak ziren —adierazi du jeloskor—. Autoa, Jagular markakoa.

— Jagularrak onak dira, ezta? —galdetu diote semeek jakin-minez.

— Bai, bai —esan du aitak haserre, eta bateriara joan da.

— Eta guk traste honetan bizi behar dugu —esan du amak izorratuta.

— Ixo! —oihukatu du aitak—. Uste dut erradiadoretik ura tantaka ateratzen ari dela.

— Ixo! —lagundu dio amak.

— Ixo! —anaiak anaia bultzatu du.

Aita erradiadorera joan da eta minutu batzuen ondoren; oso kezkatuta itzuli da.


— Ez da tantaka ateratzen. Borborka ari da, ordea —esan du—. Gero eta gehiago.

— Ur gutxiegi bota dute, ziurrenik —kontsolatu du amak.

— Aita! —oihukatu du bigarren semeak—. Zein markakoa da hau?

Aita berriro joan da ihes-hodiaren bukaeraraino autoa behatzera erantzuna eman ahal izateko.

Bidaia osoak ematen dituzte halako elkarrizketetan murgilduta, baita atsedendietan eta garajeetan egonik ere. Hala ere, Pixtimutzelak mota askotakoak dira. Kasualitatez, familia hau ez da jatorrenetako bat, baina badira desberdinak direnak, atseginagoak. Adituak dira lasterketako automobiletan; beste batzuk, berriz, kamioietan. Alegia, guztiz ezberdinak izan daitezke, baina bada den-denek daukaten ezaugarri bat: sekula ez dira beren automobiletik ateratzen, autoa aldatzeko ez bada, behintzat.



Hala eta guztiz ere, behin, familia batean, eta lehen aipatu dugun bezalako familia tradizional batean gainera, Pixtimutzel gazte batek, Nultxo izenekoak, ondoan zegoen autoa ikusita, “Aita, zein markatakoa da hau?” galdetu ordez, honako hau galdetu zuen:

— Aita, zer dago auto honen atzean?

Aita, nahiz eta erabat harritu, begiratzera joan zen, eta, itzultzean, esan zuen:

— Urez betetako ontzi handi bat dago han. Ura beharrezkoa da erradiadorerako, eta kristalak garbitzeko ere erabiltzen da. Ixo! Badirudi pneumatikoek karranka egiten dutela.

Baina, Nultxo bera, adi entzun ordez, errepidearen bestaldean zegoen lakua ikustera joan zen. Begiratu, eta gehiago begiratu, eta pixka bat gehiago ere begiratu zuen; laku inguruko azken kanabera matazak bistatik galdu arte egon zen begira (bitartean, familiak behar adinako denbora izan zuen pneumatikoak aztertzeko eta karburagailu, aginte-bolante eta sorgailu elektrikoaren egoeraz kezkatzeko).

Egun hartan, Nultxok larru berria jantzi zuen. Ez zuen konpartitzen familiarekin autoaren egoera teknikoarekiko eta beste autoen markekiko interesa. Egiten zituen galderek ez zuten zerikusirik gaiarekin, eta ez gurasoek, ezta anai-arrebek ere ez zekiten erantzuten. Azkenean, adorez beteta, Pixtimutzel arrunt batentzat pentsaezina litzatekeen pausoa eman zuen: errepide erdian autotik ateratzen uzteko eskatu zien gurasoei! Gurasoak zeharo harrituta geratu ziren.

Ulertu zutenean Nultxo ez zela adarra jotzen ari eta benetan, horrela, besterik gabe, mundura autorik gabe atera nahi zuela, lotsagarria zela saiatu ziren azaltzen, eta Pixtimutzel guztiek gaizki begiratuko ziotela. Baina Nultxo burugorria zen, eta, beste aukerarik ez zutenez, triste eta izututa agurtu, eta ateratzen utzi zioten.


Nultxo mundu berri batera abiatu zen, batere automatikoa ez zen mundura, non dena berria, ezezaguna eta arrotza baitzen. Hasieran, txirrinduz zebilen Bronba batekin topatu zen. Bronbak berarekin eraman zuen apur batean, eta joan nahi zuen lekuraino zihoan lasterbidea erakutsi zion. Katagorri batek basoa zeharkatzen lagundu zion. Geroko bidaia bakar-bakarrik egin zuen, eta, azkenean, behin ihes-hoditik ikusi zuen lakura heldu zen.

Hurbildik, hain zen ederra, isila eta lasaia, ezen Nultxok behin betirako geratzeko desira sentitu baitzuen. Portu txiki batean aurkitu zuen etxea, eta agur eskutitz bat bidali zion bere autoari. Honako hau idatzi zuen:

Familia maitea:

Urez betetako ontzi hau "lakua" deitzen da. "Baltsa" deitzen den autoa daukat hemen. Ezagutzen duzuen edozein motor baino isilagoa da, baina motelagoa da eta bor-bor egiten du apur bat. Ez dut ezer kontrolatu behar, gurpilak, bolantea eta errepede barik baitabil. Badakit azkar ibiltzea gustuko duzuela, beraz, ez zaituztet gonbidatuko, baina ni hemen geratuko naiz.

*Maitasunez,
Nultxo*



NULEK NA TRATWIE

Nultxo bere baltsan

Nultxoren ama asko hunkitu zen eskutitza irakurri zuenean.


— Ikusi duzu? —esan zion senarrari—. Gure Nultxok ere aurkitu du bere espezializazioa. Agian ez da lasterketetan aditua, baina...

— Ixo! —egin zuen garrasi aitak—. Badirudi lodi-babesa dardaratzen ari dela. Pixtimutzel familiak belarria luzatu zuen.



Itzulpena: Sonia Kolaczek
Zuzenketa: Amaia Donés Mendia

Glisando



Posible al da musikan bizitzea? Ez piano edo biolin batean, ezta aho-soinu edo txilibitu batean ere, baizik eta musikan bertan, inguruan ditugun hotsetan, entzuten ditugun tonu eta abes-tietan?

Arrainak uretan bizi dira; txoriak, airean; bakteriak, ogia estaltzen duen lizunean bizi daitezke; Ptxuj, denboran; Gzdatz, beste unibertso batean. Glisando, berriz, musikan bizi da.

Jakina, edonork ezin du igarri haren presentzia. Baina Glisando bat hor dagoen seinale da soinua bera ur azalera jaurtitako harrien antzera saltoka ibiltzea, edota irristailu ikusiezina bat soinean balu bezala labaintzea.

Glisandori soinuetan murgildu eta gero haietatik ateratzea gustatzen zaio. Gustukoen duen jolasa soinu faltsuak entzuleen belarrietara iritsi aurretik harrapatzea eta irenstea da.

Batzuetan lan handia da soinu faltsuak harrapatu, gorde eta irenstea. Soinu faltsu gehiegi dagoenean okertu egin daiteke, eta halakoetan soinu horiek inguruan zabaltzen dira. Musikari bakoitzak jakin dezake bere Glisandoa nola dagoen. Batzuetan, lasai, gogotsu eta indartsu egoten da Glisando; horrelakoetan, pentsaezina da soinu faltsu bakar bat ere libre utziko duenik. Beste egun batzuetan, berriz, alfer egoten da, ez du batere interesik izaten musikaren ordena gordetzeko; are gehiago, zenbaitetan, maltzur, soinuen lekua aldatzen du, aurreikusia zegoen ordena suntsitzeko. Gutxitan gertatzen da hori, baina gerta daiteke.

Glisandok ezin du, jakina, abesti bakarra izan; doinu bakoitzari bere letra ematen dio. Musika ondo entzuten duen orok ezagutzen ditu letra horiek.

Batzuetan, tra tatata edo trututu izaten da; beste batzuetan, lalala, lelele; edota parura tatata, mtutu, mtutu zein antzeko beste hainbat txutxu-mutxu apal.

Behin batean, Glisando bat (edo lagun minek erabiltzen zuten izena gogoratuz, Odiridi Uja) bere doinu gustukoenean ohiko moduan irristatzen ari zela, koadro bat margotzen ari zen pertsona bat ikusi zuen. Oso pintore ospetsua zen: Tenpera jauna. Tenpera jauna xuxurlaka ari zen bere baitan, eta bitartean kontzentrazio handiz jartzen zituen plano batean zabaldutako mihisean puntu txiki nahiz handiak, orban gorri nahiz berdeak, lerro urdinak nahiz sigi-saga horiak:

— Abstrakzioa. Abstrakzio hutsa. Erabateko abstrakzioa. Hemen orban beltz bat baino ez da falta... mmm... bai, abstrakzioa...

(Koadro abstraktuak ezeren antza ez duen zerbait margotuta duten koadroak dira. Ematen du erraza dela horrelako koadroak egitea, baina ez da hala.)

— Ui! —beldurtu zen pintorea—. Orban horrek jirafa baten antza dauka. Jirafa beltz bate-na. Polita da, noski, baina horrela ez naiz abstrakzionista izango. Jirafa horren gainean pintura jarri behar dut berehala!

Pintura hori apur bat hartu eta jirafa beltzaren gainean zipriztindu zuen.

— Bai... horrela ondo behar luke... baina ez! Orain Bronba hori-beltza dirudi! Pintura gorria zipriztinduko diot... beno, azkenean, ondo...

Bi urrats egin zituen atzera, eta, etsipenak jota, eskuak burura eramane zituen.

— Tranbia hori-beltz-gorria margotu dut!

— Odiridi, uja! —abestu zuen Odiridik.

— Zer izan da hori? —harritu zen Tenpera jauna.

— Glisando da, uja! —abestu zuen Odiridik.

— A, Glisando —konturatu zen pintorea—. Urte askotarako!

— Zerbait gaizki al dabil, uja? —galdetu zuen Glisandok.

— Zoritxarrez —esan zuen pintoreak—, margotzen dudan guztiak objekturen baten antza dauka, eta abstrakzionista naizenez ezin dut horrelakorik onartu. Uste dut erretratuak margotzen hasiko naizela, askoz errazagoa da.

— Ni margotu nazazu, uja! —oihukatu zuen Odiridik.

— Baina ezinezkoa da zu erretratatzea. Inork ez daki nolakoa zaren.

— Nik neuk esango dizut, uja! —abestu zuen Glisandok—. Lehenik eta behin, horia.

Tenpera jaunak, oraindik gehiegi sinetsi gabe, pintura horian sartu zuen pintzela. Glisandok argibideak emateari ekin zion:

— Lerro luzea, uja! Orain, berdea, uja! Puntu txiki bat, uja!

Tenpera jaunak eta Glisandok arratsalde osoa igaro zuten elkarrekin lanean, harik eta Odiridik erretratua onartu eta antzekotasuna izugarria zela esan zuen arte. Pintoreak alde guztietatik begiratzen zion koadroari.

— Beraz... horrelakoa zara... ederra... ez daukazu ezeren antzik. Uste duzu zure erretratua erakusketa batera bidal dezakedala? “Odiridiren erretratua” izenda dezaket.

Halako proposamen bat edonork onartuko luke, zalantzarik gabe. Odiridik onartu egin zuen erretratua, bai eta harro agertu ere. Gainerako Glisando guztiei kontatu zien, eta Glisando asko joan ziren Tenpera jaunarengana beren buruaren erretratuak eskatzeko asmoz.

Tenpera jaunak gustura onartzen zuen; gainera, erakusketa handi bat egin ahal izan zuen. Lagun pintore guztiak etorri ziren Tenpera jaunaren lanak ikustera.



— Oso izen bitxiak ematen dizkie Tenpera jaunak bere koadroei —zioten—. “Parura familiarekin”, “Tipitipitip” eta “Hoc Hoc”, “Umfa Umfa pentsakor”...

— Dena den, gure aburuz koadro abstraktuak dira —begirunez esaten zuten, gustukoak baitzituzten, benetan. Izan ere, oso gutxi dira Glisando gazte eta osasuntsuak bezain politak diren animaliak.



Itzulpena: Sonia Kolaczek
Zuzenketa: Amaia Donés Mendia

Glux: zinemagilea



Glux txikiari asko gustatzen zaio telebista ikustea. Orain arte Gaitan Kurrinkarenera joan behar izaten zuen (aurrerapenen aldekoa izanik, atzerrira egindako bidaia batetik ekarri zuen telebista), baina azkenean lortu du bere gordelekura bertara tramankulua ekartzea.

Glux izaki txiki eta ezezagun horietako bat da, ezerगतik nabarmentzen ez denetakoa. Egunetik egunera, hilabetetik hilabetera bizi da, janaria geroko prestatzen edo umeldutako janaria jaten.

Norbaitek Gluxekin topo egiten badu, Glux izango da beti “Egun on!” esaten lehenengoa. Eta horrela behar duela uste dute guztiek.

Gluxek bazituen hainbat kontu berarentzat garrantzitsuak ziren beste animalia batzuekin (adibidez, Axakentzat futbol zelaiko belarra moztzen zuen Exakekin batera, edo Pixtimutzelei behar zituzten tresnak uzten zizkien); hala ere, oso bakartia zen.

Gaitan Kurrinka, telebista atseginez piztu eta gurutzegramaz zailetan laguntzen bazion ere, lanpetuegi zegoen benetako arazoekin Gluxi benetako maitasuna erakusteko.

Bronbak dena neurtu zion Gluxi, baina eginbehar asko zeuzkan eta etengabe bidaiatzen zuen; beraz, ezinezkoa zitzaion harekin ohiko lagunarteko elkarrizketak mantentzea. Soilik batzuetan, topo egiten zutenean, bata bestearen ondoan jartzen ziren, eta, denbora gutxira, Bronbak hausnarkor esaten zuen:

— Baiiiiiiiiiiii...

Glux asko harrotzen zen orduan, hain pertsona serioak bere ondoan hausnartzen baitzuen, eta, ulertzen zuela erakusteko, hasperen egiten zuen. Bronbak, orduan, isilik begiratzen zion, eta, gero, gehitzen zuen:

— Bai. Bai.

Gluxek arnasari eusten zion, Bronbari adierazteko benetan baloratzen zuela egindako hausnarketa. Bronbak hodei gabeko zerura goratzen zituen begiak, neurtzeko zerbait ba ote zegoen egiaztatzeko. Luzaroan begiratzen zion mugagabetasun urdinari, luze, luze...

Azkenean, arnasa bota, geldirik zegoen Gluxi begiratu, eta bere buruan hasita zuen esaldia bukatzen zuen:

— Zalantzarik gabe.

Eta Gluxek, orduan, marmar egiten zuen pozik, marmarra ahalik eta egokiena izan zedin saiatuz. Izan ere, marmarra ez zen Bronbak pentsatzen zuenarekin adostasuna erakusteko modua bakarrik, baizik eta baita adiskidearekin ados zegoela azpimarratzeko era ere, eta sentikor-tasanagatik bakarrik ez zuen ozen errepikatu nahi izaten.

Beste lagunei buruz, bakarrik esan daiteke atseginak eta onak zirela Gluxekin, baina aldi berean ez zutela asko hitz egiten lagunek egin ohi duten moduan, agian zer galdetu ez zekitelako. Ez da bitxia, beraz, telebista hain gustuko izatea.

Ezohiko pertsoneri buruzko ezohiko albisteak, mirariak adorez egiten zituzten pertsonaiak protagonista zituzten filmak, tentsioz betetako tragediak eta umorez betetako komediak: hain desberdina zenez hori guztia bere eguneroko bizitza grisaren ondoan, gogo handiz esertzen zen arratsaldero aulki bigunean pantailaren aurrean.

Telebista eta filmei buruzko prentsa erosten ere hasi zen, aktoreen argazkiak biltzen, eta astekari batek egindako inkesta batean bi aldiz azpimarratu zuen arkatz gorritz erantzuna: “Programa guztiak asko gustatzen zaizkit”.

Izaki txikia izan arren, amets handiak zeuzkan. Askotan, ametsak ez dira pertsona baten tamaina naturalarekiko proportzionalak. Eta, izaki arruntak beren ametsen ondoan jarriko balira, egiaztatuko genuke amets handienen alboan ez daudela izaki handi eta indartsuenak.

Gluxek film batekin egiten zuen amets. Ez, ez zuen aktore izan nahi (pentsatzen zuen txiki-gia zela horretarako). Kamera-operadore ere ez zuen izan nahi, hau da, gertaerak kamera erabiliz zinta batean grabatzen zituen norbait.

Irrikan zegoen film-zuzendari gutxienez behin, behin bakarrik izateko.

Film-zuzendariak —ametsen zuen Gluxek— dena antola dezake, istorio osoa, istorio sinestezinak ere bai, eta gero proiektore batean jar dezake, edo telebistan, eta hori Bere Istorioa izango da, bera izango da egile nagusia...

Horrelako egoera baten zoragarritasunak hainbesterako atsegina eman zion, ezen irri egin baitzuen berekiko, hori egitea ondo ikusia eta elegantea ez dela jakin arren.

Zuek tentsioan ez izateko, hasieratik esango dizuet Gluxek bete egin zuela bere ametsa. Hona hemen nola izan zen. Ezaguna zuen sagu batek, Film Ekoiztetxe Handian lan egiten

zuenak, kamera utzi zion Gluxi egun batzuetarako. Hura aldi bakarra izango zela esan zion, probatu zezan. Baliteke bere senidea izatea, eta onbera hutsa, familiarekin bereziki.

Glux pozez erotzear zegoen. Iragarkiak jarri zituen nonahi.

Glux film zuzendariak
film bat egingo du
berak idatzitako gidoian
oinarrituta,

“Sherif, jarri buztana mahaian” izenburua duena.


Edonori eskatzen zaio laguntza.

Bronba eta Gaitan Kurrinka bidaiari zeuden, baina gainerako guztiek ulertu zuten ideia arrakastatsua izango zela, eta prest agertu ziren beren laguntza gustura emateko.

Fikander (Fikander bera!) arratsaldera arte paseatu zen Gluxekin gidoiaren xehetasunei buruz hitz egiteko.

Azkenean, filmari izenburua aldatu zioten: “Sherif, jarri buztana mahaian, zuk ere” eta iragarkiaren azpian gehitu zuten: “Testuaren kontsulta: Fikander”.

Adituak faltan izan, eta Pixtimutzel bat jarri zuten kameraren atzean (kostatu zitzaizen konbentzitzea kamera auto baten antzekoa zela). Pertsonaia nagusien rolak Malbatxok, Fum gazteak eta Birigarrok egin behar zituzten. Gainerako artistak eta teknikariak Axakak, Exakak eta parkeko urtxintxak izan ziren (tira, ahal zuen edonor, egia esan).



Gluxek, betaurreko handiak jantzi, eta, ezpainenetan hodi baten ordeztatu bat zuela, oihurtzen zuen:

— Kontuz! Isilik, mesedez. Hasi egingo gara!

Denbora asko igaro zen hasi ziren arte. Beleak noraezean zebiltzan eta bal-bal hitz egiten zuten modu gogaikarrian. Malbatxok orrazia galdu zuen, eta ez zuen ile nahastuarekin irten nahi. Fum gaztea kexu zen argiek itsutu egiten zutela eta ez zuela halako egoera batean lan egingo. Pixtimutzelek kirten bat ateratzen zuen kameratik, abiadura-kaxa balitz bezala. Zailtasun horiek gorabehera, Gluxek bere filma egin zuen: iraileko eguzki berotan, berde koloreko mendixken erdian eta krisantemo bilotsu handi-handien artetik, Sherif ausarta arrastaka hurbildu zen azken momentuan lady ederra birigarro faltsuen hanketatik salbatzeko. Eta garaiz iritsi arren, erreka bortitzak harrapatu zuen eskuak bere salbatzailearenganantz zuzentzen zituen ladya. Baina urtxintxak, barruko arropa garbitu eta ladya ateratzea lortu zuenez, amaiera zorionsua izan zen. Hiru bat egunetan grabatu zuten hori guztia. Gero, Gluxek bere lehengusuari itzuli zion kamera, eta zinta ateratzeko eskatu zion.

Estreinaldiaren eguna iritsi zen. Filma ikusteko zain zegoen jendetza ez zen gordeleku handiengan ere sartuko, eta zer esanik ez Gluxenean, hain txikia izanik. Gauzak horrela, hainbat saio egitea erabaki zuten.

Gutziz berotuta, Glux oheko lanpararekin eta hainbat arrabilekin egindako proiektorearen ondoan jarri zen, eskuan jaso berri zuten kutxa zuela, zinta barruan zuena.

Lehenengo gonbidatuek beren lekuak hartu zituzten, argiak itzali ziren, eta Gluxek proiektorea piztu zuen.

Nola esango nizueke?

Pantailan ez zegoen ezer. Orban argiak dar-dar egiten zuen erritmikoki; itzal bat pasatzen zen noizbehinka. Itxuraz, Pixtimutzelek ez zuen kameratik lentea babesten zuen tapa kendu, zinta osoa berdin-berdina zelako, hau da, garbia eta irudirik gabea.

Ikusleak, estutasunez, xuxurlatzen hasi ziren elkarren artean.

— Ez dut ezer ikusten! —oihukatu zuen Fumek.

— Hemen korrika agertu beharko zenuke zuk —esan zuen Gluxek ahots dardartiz—. Arnasestuka geranioak jasotzen agertu beharko zenuke, eta orain lakioa hartzen duzu... orain korapiloa egiten duzu....

Horrela, agertzen ez zen eta agertu behar zuen guztia kontatu zuen Gluxek.

Kanpoan, gainerakoak lehenengo ikusleen zain zeuden.

— Nola atera da, nola? —oihukatu zuen kazetari batek Fikander botoi batetik harrapatzen zuela.

— Beno... —hasi zen bera zalantzan—. Gauza batzuk falta dira, perfekzio teknikorik ez dago, baina....

— Baina, hitz batean, arrakasta izan da! —bukatu zuen kazetariak, eta publikoari bultzaka gordelekuaren barruan desagertu zen, “Prentsa! Prentsa!” oihukatzen zuela.

Argiak itzali ondoren, Glux hasieratik hasi zen kontatzen. Arroila handi harritsuak. Behean Sherif ausartaren silueta. Mugimendu azkarrez bere saihetsean dagoen soka hartzen du...”

Bigarren saioko ikusleak nahiko keinu alaiekin irten ziren.

— Niri ere gustatu zait —aitortu zuen kazetariak—. Agian literario samarra, baina hori da gaurko moda!

Hirugarren saioa hobeto atera zen, eta laugarrena arrakasta hutsa izan zen. Orduan, lehenengoan egon zirenak bosgarrenera joan ziren, eta erabaki zuten aurrekoan zorrotzegi baloratu zutela filma.

— Ondo ezagutzen denean, Glux adimentsua dela ikusten da —esan zuen Fikanderrek.



Eta Gluxen filmak oso ospetsuak bihurtu ziren. Ulertzen duzue, jakina, zergatik diogun filmak? Gluxek, askotan halako gonbidatu zentzudunei harrera egin ahal izateaz poz-pozik, titulu berriak asmatzen zituelako bere zintarentzat. Behin “Gzdatsen bidaia luzearen amaiera zoriontsua” izan zen, beste behin “Malbatxoren xarma” edo “Azuntzak eraman zuena”...

Gluxek ez zuen kamerarik behar, ezta talde tekniko osoaren laguntzarik ere. Fikanderrekin kontsultak egitea zen denbora hartzen zion gauza bakarra.

Baina nahiz eta esker ona irabazi, behin isilik gelditu zen, betiko, Glux lotsatia.

Baliteke zintetan ezer ez zegoela zekielako izatea, edo, agian, bere filmen amaierak zorioneko bihurtzen zituelako askotan.



Itzulpena: Joanna Anders
Zuzenketa: Amaia Donés Mendia

Destino, Polonia: primera estación

En octubre de 2012 Aiora Jaka visitó la Universidad Adam Mickiewicz de Poznan, invitada por el lectorado de euskera y gracias a las becas Erasmus para profesores de la UPV-EHU. Ofreció varios talleres y charlas a los alumnos de euskera y de traducción; en estas páginas nos relata la crónica de ese viaje. Pero de Polonia también trajo consigo algunos cuentos de literatura infantil (aunque no solo infantil) traducidos en años anteriores por alumnas de euskera de Polonia. A continuación, pues, recogemos algunos relatos de Maciej Wojtyszko, mediante los que el autor, a través de la mirada del personaje Bromba, observa la sociedad que nos rodea de manera crítica e inteligente, pero al mismo tiempo llena de imaginación. Wojtyszko, nacido en 1946 en Varsovia, no es solo escritor, sino también director y guionista de cine, televisión y teatro. Ha trabajado en campos como la animación, y en el ámbito de la literatura es conocido por sus obras de literatura infantil. Bromba es seguramente su personaje más conocido, y es en homenaje a este peculiar animal que se organiza desde el año 2007 el festival "Brombalandia", un festival polaco dedicado a las artes infantiles.

Destination, Pologne : première étape

Au mois d'octobre 2012, Aiora Jaka a visité l'Université Adam Mickiewicz de Poznan, invitée par le lectorat d'euskera et grâce à une bourse Erasmus allouée aux professeurs de l'Université du Pays Basque. Elle a présenté plusieurs ateliers et prononcé des conférences aux étudiants qui suivent des études d'euskera et de traduction. Dans ces quelques pages elle nous fait la chronique de ce voyage. En retour, elle nous a rapporté plusieurs contes appartenant à la littérature pour enfants (quoique non seulement pour eux) et traduits les années précédentes du polonais en basque par les étudiantes d'euskera. Suivent donc quelques récits de Maciej Wojtyszko où l'auteur, à travers le regard de son personnage Bromba, observe la société qui nous entoure, avec une vision critique et intelligente, et en même temps pleine d'imagination. Wojtyszko, né à Varsovie en 1946, joint à son métier d'écrivain celui de directeur et scénariste de cinéma de télévision et de théâtre. Il a travaillé dans le monde de l'animation et, en tant qu'écrivain, il est connu pour ses œuvres de littérature de jeunesse. Bromba est certainement son personnage le plus célèbre et c'est en hommage à cet animal si particulier que l'on organise depuis 2007 dans ce pays le festival « Brombalandia », un festival d'art pour enfants.

Destination Poland: First Station

In October of 2012, Aiora Jaka visited Adam Mickiewicz University in Poznan as a guest of the faculty of lecturers in Basque and with the assistance of an Erasmus grant for professors of the University of the Basque Country. She offered various workshops and presentations for students of Basque and of translation; this work is a chronicle of her trip. But she also brought back from Poland a number of stories for children (though not only for children) that had been previously translated by Polish students of Basque. Stories by Maciej Wojtyszko are included, by means of which Wojtyszko, through the eyes of his character Bromba, observes the society around us critically and intelligently, but also imaginatively. Wojtyszko, who was born in 1946 in Warsaw, is not only a writer, but also a director and scriptwriter for film, television and the theater. He has worked in areas like animation, and in the field of literature is known for his children's literature. Bromba is surely his best known character, and it is in homage to this strange creature that the Brombaland Festival, a Polish festival of children's arts, has been held since 2007.